

MERKATARITZA ETA INBERTSIO ITUNEN AURKAKO LATINOAMERIKAR ERRESISTENTZIA FEMINISTETATIK ERATORRITAKO IKASKETAK

FTAA errefusatzetik kapitalismo patriarkala zalantzan jartzera

Amaia Pérez Orozco





Titulua: Merkataritza eta inbertsio itunen aurkako latinoamerikar erresistentzia feministetatik eratorritako ikasketak. FTAA errefusatzetik kapitalismo patriarkala zalantzan jartzera.

Egilea: Amaia Pérez Orozco.

Diseinua eta maketazioa: Alba Onrubia García.

Argitaratze data: 2017ko ekaina.



Argitaratzaileak:

Bakea eta Duintasuna 1995ean sortutako nazioarteko elkartasuneko erakunde bat gara. Gure lanak pentsamendu eta praktika alternatiboa sortzea du helburu. Horretarako, ikuspegi emantzipatzaile eta internazionalista batetik abiatuta, ikerketa, eragin sozial eta politikoa, komunikazioa eta gizarte eraldaketa prozesuak erabiltzen ditugu. Horien bitartez gaur egun nagusi diren bizimoduen aurrean antagonikoak diren bizimoduak lortu nahi ditugu. Gure lanak hiru ardatz hauek ditu: nazioarteko lankidetzeta, Pueblos komunikazio proiektua (www.revistapueblos.org) eta OMAL Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (www.omal.info). Horrez gain, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektu desberdinak ere egiten ditugu.




OMAL Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia Bakea eta Duintasuna erakundeak 2003an sortutako proiektu bat da. Honako gai hauek lantzen ditu: enpresa transnazionalen praktikak eta inpaktuak ikertzea eta salatzea, botere korporatiboaren mundu mailako joerei segimendua egitea eta ikuspegi emantzipatzaile batetik alternatibak sistematizatzea eta ikertzea.

Laguntzaileak:




Lizentzia:





Txosten hau Amaia Pérez Orozcok OMAL Latinoamerikako Multinazionalen behatokiarekin elkarlanean egindako ikerketa baten emaitza da. Ikerketa horrek honako helburu hauek ditu: ikuspegi feminista batetik merkataritza eta inbertsio itunen olde berriak Euskal Herrian izango dituen ondorioak aztertzea eta ikuspegi emantzipatzaile batetik alternatibak proposatzea.



Merkataritza eta inbertsio itunen aurkako latinoamerikar erresistentzia feministetatik eratorritako ikasketak

**FTAA errefusatzetik kapitalismo
patriarkala zalantzan jartzera**

argibidea

| | | |
|----|---|----|
| 1 | NONDIK DATOR TESTU HAU ETA ZER HELBURU DU | 07 |
| 2 | BOTERE KORPORATIBOA ETA MERKATARITZA ETA INBERTSIO ITUNAK | 09 |
| 3 | MLI-EN AURKAKO ERRESISTENTZIA FEMINISTA ABYA YALAN | 15 |
| 4 | LEHEN IKASKETA: INPAKTUA AZTERTZETIK SISTEMA SALATZERA | 23 |
| 5 | BIGARREN IKASKETA: SISTEMA PATRIARKALA DA, ERRESISTENTZIA FEMINISTA DA | 31 |
| 6 | HIRUGARREN IKASKETA: (EMAKUMEEN) BIZITZATIK EUSTEA ETA BEGIRATZEA | 41 |
| 7 | LEHENENGO TENTSIOA: ZER NOLAKO AUTONOMIA? | 49 |
| 8 | BIGARREN TENTSIOA: ALDERDI TEKNIKOA ETA MOBILIZAZIO POLITIKOA | 55 |
| 9 | HIRUGARREN TENTSIOA: LEHENTASUNEZKO GAIK GAI SEKTORIALEN AURREAN, ALA INTERES SEKTORIALETATIK ERATORRITAKO INTERES KOMUNA? | 61 |
| 10 | GAUR EGUN PENTSATZEKO GAKOA: NEOLIBERALISMOAREN BERRANTOLAKETA ETA INDARKERIA PATRIARKALA | 65 |
| 11 | GAUR EGUN JARDUTEKO GAKOA: TOKIKO EREMUA BESTELAKO ESKUALDE INTEGRAZIO BATEAN ALTERNATIBA GISA | 73 |
| 12 | BUKATZEKO | 81 |
| 13 | BIBLIOGRAFIA | 87 |



1. Nondik dator testu hau eta zer helburu du:

Krisi sakona bizi dugu. Aspalditik azpimarratu izan dugu hori ikuspegi anitzetik. Krisi ekologikoa oso larria da eta, dagoeneko, kolapso ekologikoak saihestezina ematen du. Horrek, ezinbestez, gure gizarteetako eremu materiala txikiagotzera behartzen gaitu. Aldi berean, egitura politiko eta sozioekonomiko osoa krisi larrian dago: mundu osoa (baina oso era desberdinetan) astintzen duen gizarte ugalketa krisia dago; politika ulertzeko eta gure burua subjektu politikotzat hartzeko moduan eragina duen ordezkartza krisia dago; talde soziala izatearen zentzua bera ere krisian dago. Labur esanda, zibilizazio krisi bat dago. Edo beste era batera esanda, trantsizio momentu bat bizi dugu; bizi garen mundutik... Nora? Feminismoak eskandalagarritzat jotzen duen zibilizazio proiektuaren porrota ospatu eta hori elkarbizitza onaren iraunkortasunean oinarritzen diren beste mundu posibleetara eramán dezakegu? Ala amildegira goaz zuzenean?

Berrantolaketako momentu honetan, merkataritza eta inbertsio itunen olde berri bat sortzen ari da. Horien bitartez botere korporatiboak bere burua sendotzen du; mundu mailako protagonista eta sistemaren lehenengo eta azken onuradun nagusi gisa.

Nola egin diezaiokegu aurre horri, feminista bezala, gizarte mugimenduen multzo bezala eta herritar kritiko bezala? Testu hau galdera horretatik eta horren oinarrian dauden bi ideiatik sortu da. Alde batetik, Europa Botere korporatibo kolonialistaren gunea da (edo izan da?). Hortaz, bere burua eta mundua bera botere horren periferietatik begiratu behar du; deszentratu behar du, alegia. Horregatik, hain zuzen, testu hau iparralde globalean sortu da eta eremu hori Latinoamerikako (eta Karibeko) esperientziaz kutsatu nahi du. Beste alde batetik, feminismoak behar bezala esploratu ez den ikuspegi analitiko eta politiko indartsua eskaintzen du. Horregatik, sistema ekonomikoari kritika egiteko eta alternatibak sortzeko helburuz, esperientzia eta praktika feministetatik ikasi nahi dugu.

Laburbilduz, testu honetan nagusi den gizarte eta ekonomia sistemarekin kritikoak diren Latinoamerikako ikuspegi feministetatik eratorritako ikasketak bildu nahi izan ditugu. Aipatu dugun bezala, merkataritza eta inbertsio itunen ofentsiba berri bat bizitzen ari gara eta, horren aurrean, gizarte mugimenduak (kasu honetan, bereziki, iparralde globalekoak) bultzatuko dituzten gakoak identifikatu nahi ditugu.

Testu honetarako bi iturri erabili dira. Alde batetik, idatzizko dokumentuak kontsultatu dira (ikerketak, txostenak, memoriak, difusiorako eta mobilizatorako materialak, etab.) eta, bestetik, Latinoamerikako zenbait adiskide feminista elkarrizketatu ditugu. Izan ere, emakume horiek era zuzen eta aktiboan jardun dute merkataritza akordioen eta, orokorrean, neoliberalismoaren kontra¹. Beren esperientziak, ikasitakoa eta zalantzak abiapuntu hartzen saiatu gara. Dena den, orrialde hauek idatzi ditugunok, ezinbestez, bertan ageri diren ideiak iragazi ditugu. Bada, beren esperientziak partekatu zizkiguten emakumeek hori ulertzea espero dugu. Izan ere, gure asmoa ez da eurek esandakoa desitxuratzea; aitzitik, hitz horiek irakurriko dituzten horien garaiari eta lurraldeari moldatutako irakurketa bat egin nahi izan dugu. Hitz batez, eztabaidari ekarpen bat egin nahi izan diogu. Beraz, hau irakurtzen duzuenok hori ulertzea espero dugu.



¹ Honako hauek dira elkarrizketatu genituen emakumeak: Alba Carosío, Ana Felicia (Tita) Torres, Graciela Rodríguez, Hilda Salazar, Magdalena León, Teresa Blandón, Miriam Nobre, Nalu Faria, Norma Sanchís eta Sandra Ramos. Eskerrik asko guztiei euren jakintzak partekatzeko astia eta energia aurkitzeagatik. Testuan, euren hitzak aipatuko ditugu, euren izenen inzialak erabiliz.



2

botere korporatiboa eta merkataritza eta inbertsio itunak

2. Botere korporatiboa eta merkataritza eta inbertsio itunak

Gaur egungo mundua ulertzeko, funtsezkoa da botere korporatiboak duen rola ulertzea. Horretarako, lehenik eta behin, botere korporatiboa zer den ulertu beharko dugu.

Feminismoak *gauza eskandalagarri hori* kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka estruktural eta konponezinean oinarritzen dela ohartarazten digu. Botere korporatiboaz ari garenean, enpresa transnasionalek beren interesak mundu mailan inposatzeko erabiltzen dituzten egitura eta mekanismoez ari gara. Horretarako bizirik dagoenaren gainetik pasatzen dira. Baina bizitza ez da abstraktua; bizitza, alderantziz, planetaren bizitza eta pertsonen bizitza da. Kapitala ere ez da abstraktua; izan ere, horren atzean egitura espezifikoak eta pertsona konketuak daude. Botere korporatiboa *kapital* horren gailurrean dago eta kolonialismoa eta inperialismoa nagusi izan dituen historia batean oinarrituz sortu da.

Botere korporatiboa, bada, enpresa transnasionaletan gauzatzen da². Era berean, botere horren inguruan, enpresa horiek, botere ekonomiko, politiko, kultural eta juridiko erraldoia lortzeko erabiltzen dituzte dituzten estrategiak, tresnak eta praktikak ditugu. Beraz, enpresa horiek, ekonomiaren eta politikaren funtzionamenduan eragiteko ahalmen handia dute. Hortaz, mekanismo juridikoak jartzen dituzte beren zerbitzura eta eragin zuzena dute egitura sinboliko eta diskurtsiboetan. Batzuetan, botere hori bide formalen bidez erabiltzen dute, arau eta politika espezifikoak erabiliz. Beste batzuetan, berriz, ezkutuka erabiltzen dute; esaterako, presio taldeen bitartez edo modu ikusezinean, hau da, sub-

² Hitz hori enpresa transnasionalei, multinazionaleri eta enpresa edo korporazio handiei dagokie. Horiek komunean dituzten elementuak sakonago aztertzeko, ikus Hernández, González eta Ramiro (2012).

jektibitateak eta bizimoduak baldintzatuz³. Botere korporatiboa multinazionalen garrantzia indartzen duten arau eta praktika juridiko desberdinetan oinarritzen da. Arau eta praktika horiek “zigorgabetasunaren arkitektura juridikoa” edo *lex mercatoria* osatzen dute (Hernández Zubizarreta y Ramiro, 2015). Hau da, Plaza eta Ramiroren hitzetan:

“Zuzenbide Korporatibo Global berria. Horrekin, enpresa transnasionalek beren eskubideak bermatu eta beren negozioak babesten dituzte, arau eta hitzarmen anitz erabiliz. Aldi berean, ez dago ez kontrapisu nahikorik ez mekanismo eraginkorrik horiek gizartean, ekonomian, lanean, ingurumenean eta kulturatan sortzen dituzten inpaktuak kontrolatzeko” (2016: 11)

Zigorgabetasunaren arkitektura juridiko horrek multinazionalen eskubideak blindatu egiten ditu. Aldi berean, enpresa horien betebeharrak murrizten ditu eta, ondorioz, hauek besterik ez dituzte bete behar: logika neoliberalaren menpe dauden lege nazionalak eta lan eta giza eskubideen nazioarteko araudi ahula.

Arkitektura hori sortzeko enpresa multinazionalak parte hartze aktiboa izan dute. Baina alde anitzeko organismoek, esaterako, Munduko Merkataritza Erakundeak (MME), ere parte hartu dute, baita multinazional horien jatorrizko estatuak eta inbertsioak eta jarduerak hartzen dituztenek ere. Hauek dira *lex mercatoria* horren tresna nagusiak: esportazio eta merkaturatze kontratuak, merkataritza itunak (aldebikoak, alde anitzekoak edo eskualde mailakoak), inbertsioak babesteko akordioak, laudo arbitralak eta alde anitzeko politika, arau eta xedapenak. Beste hitzetan esanda, agertoki berri horretan enpresek, zigorrik gabe, beren interesen alde egiten dute eta merkataritza eta inbertsio itunak agertoki berri hori sortzeko funtsezko tresnetariko bat da.

Esan bezala, merkataritza akordioak tresna bat dira. Horien bitartez, herriek euren arteko merkataritza errazten dute, merkantziak mugitzea eragozten duten muga-zergak eta beste muga batzuk murriztuz. Inbertsio akordioak, ordea, herrien arteko konpromiso bat dira. Hala, herri bateko enpresek beste herri batzuetan dituen inbertsioak babesten dituzte. Gaur egun, “itun olde berri bat” (González, 2017) ikusten ari gara. Itun horiek ekarri dituzten berritasunen artean honako hauek azpimarra ditzakegu: lehenik, aurreko hamarkadetan sinatutako akordioak

3 Botere korporatiboaren aurkako borroka feministari dagokionez, botere korporatibo formal, ezkutu eta ikusezinaren arteko bereizketa ikusteko, ikus Moussié (2016).

merkataritza edo inbertsio akordioak ziren; gaur egungoak ordea, dimentsio biak uztartzen dituzte. Bigarrenik, horiek hartzen dituzten eremu geografikoa mundu osoa da, hau da, iparralde zein hegoalde globala. Zentzu horretan, anbizio handiko mundu mailako ofentsiba integral baten aurrean gaude. Hori, merkataritzaren eta inbertsioaren adiera oso zabal batean oinarritzen da (ondasunak, zerbitzuak, erosketa publikoa, nekazaritza, ondasun komunak, etab.). Beraz, horretan, ez dago ezer *merkataritzari eta inbertsioari oztopo* kontzeptutik kanpo.

Guamánen arabera (2016), olde berri horrek hiru alderdi nagusi biltzen ditu. Lehenik, negoziatzen ari diren akordioek eragina dute merkatuetarako sarbidean, botere korporatiboak merkatu berrietan sartzeko duen ahalmena handitzen baitute. Izan ere, alde batetik, ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko mugikortasunari oztopoak kentzen zaizkio eta, bestetik, lehen merkatuan ez zeuden sektoreetan onura asmoa txertatzen da (adibidez, multinazionaleri zerbitzu publikoetan sartzen uzten zaienean). Bigarrenik, arauen konbergentziak aurrera egiten du. Horren bitartez, akordioak sinatzen dituzten herrialdeetako araudiek kontraesanean ez egotea bermatzen dute. Konbergentzia horrek, egia esan, murriztu egiten ditu arauak, ingurumenaren, gizarte babesaren eta lan eskubideen esparruetan. Azkenik, akordio horiek inbertsioen segurtasuna babesteko mekanismoak dituzte (inbertitzaile-estatuaren arteko diferentziak konpontzeko mekanismo deitutakoak). Hau da, horien arabera, enpresa batek beste estatu bat salatu dezake, horrek enpresaren onuren kontra doazen erabakiak hartzen baditu. Hala, ikuspegi horrek, momentuko irabaziez gain, etorkizunerako aurreikusten diren irabaziak ere barne hartzen ditu (adibidez, enpresa baten irabazi marjina murrizten duen ingurumen-araudi zorrotzago bat ezartzen bada). Hala, salaketa hori hiru arbitro pribatuk (horrela esaten zaie) osatutako nazioarteko *auzitegi* batera eramango da. Beraz, labur esanda, estatuak beren ekonomia arautzeko ahalmena galtzen dute eta merkatuetan kapitala metatzeko prozesuaren funtzionamendu ona bermatzen duen *gubernantza korporatibo* bat sortzen da (Fernández, 2017). Azkenean merkatu horiek dena hartzen dute, bizitzaren alderdi desberdinak, alegia. Taula honetan, olde berri horretan negoziatzen ari diren akordio nagusiak ageri dira:

Egia esan, Trumpekin, 'Brexit'-arekin, eta abarrekin, ematen du joera hori aldatuko dela. Izan ere, Trumpek berak, AEBen negoziazioak geldituko dituela ziurtatu du (TTIP, TPP). Hala ere, aldi berean, Alemaniarekin (hau da, EBrako sarbidea) negoziatzen ari da. Beraz, zibilizazio proiektuaren krisiaren aurrean, bi proiektu agertzen ari al dira, bata bestea baino *globalizatzaileagoa*? Aurrerago, horren

inguruan itzuliko gara. Oraingoan, bi gauza besterik ez dugu esango (Fernández, 2017). Lehenik, lehen esan bezala, kapitalak aurpegia du, eta zenbait kapital desberdin haien artean lehiatzen ari dira. Beraz, desberdintasunak daude proiektu desberdinen artean (bata *unibertsalista* eta bestea *kapital nazionalen arteko gerra*-n oinarrituta). Haatik, globalizazio prozesua bera, botere korporatiboa hedatzeko baldintzak ezartzen dituen heinean, ez dago kolokan. Bigarrenik, nahiz eta sinatzen diren akordioak, parte hartzen duten herrialdeak eta edukiak aldatu, merkataritza eta inbertsio itunen oldeak aurrera jarraituko du.

Bestela esanda, botere korporatiboak kapital-bizitza gatazka gobernatzen jarraitzen du eta, horretarako, merkataritza eta inbertsio akordioak bere tresna nagusiak dira. Zenbat eta handiago izan botere korporatiboa hainbat eta handiagoa izango da horrek bizitzarekin duen gatazka. Lehen hau galdetu diogu gure buruari: Feminista bezala, gizarte mugimenduen multzo bezala eta herritar kritiko bezala, nola egin diezaiokegu aurre zibilizazio krisi, trantsizio eta hondamendi ekologikoko momentu honi? Pauso txiki bat ematearren, galdera handi horri erantzuteko, beste galdera handi hau egin behar diogu gure buruari: Nola egingo diogu aurre merkataritza eta inbertsio itunen olde berri horri? Garayren hitzetan:

“Gaur aurrean ditugun merkataritza libreko itun berriak ikuspegi feminista batetik aztertu behar ditugu. Orain, argi eta garbi ikus dezakegu kontraesan estruktural bat dagoela kapitala metatzearen eta bizitzaren iraunkortasunaren artean. Izan ere, gorputzak eta lurraldeak kolonizatze prozesua sakondu nahi duen estrategia berri baten aurrean gaude. Horrek, gizartearen gehiengoa, emakumeak eta planeta erasotzen ditu. Beraz, horren aurrean, ezinbestekoa da proposamen ekonomiko eta politiko feministak aurkeztea eta garatzea. Horiek, gizarte jardueraren munitetik merkatuak kanporatu eta, horien ordean, bizitzaren iraunkortasuna kokatu beharko dute” (2017: 9)

Gehiago sakondu baino lehen, gure burua argitu behar dugu: Zertaz ari gara? Merkataritza eta inbertsio itunez (MII) ala merkataritza libreko itunez (MLI)? Alde batetik, aurreko hamarkadetan gure Latinoamerikako adiskideek borrokatu zituzten itunek ez bezala, gaur egun negoziatzen ari direnek merkataritza eta inbertsioa uztartzen dituzte. Beste alde batetik, zer gertatzen da liberalizazioaren ideiarekin? Aipatu bezala, akordio horiek kapitalaren aldeko araudi global bidegabea ezartzeko mekanismo nagusia dira. Hori, botere korporatiboan gauzatzen da. Hala, alde batetik, gizarte eta ingurumen babesa eta herritarren eskubideak desarau-

tzen dituzte. Aldi berean, akordio horiek, instituzio publikoek ekonomia kudeatzeko duten ahalmena deuseztatzen dute. Bestetik, korporazio handien negozioak berrarautzen dituzte, kapital transnazional handien maniobra marjina bermatuz. Beraz, guk ez diegu merkataritza libreko itun deitu nahi, askatasun horren ikuspegi oso iruzurtia baita. Latinoamerikako adiskideek, ordea, merkataritza libreko itun deitzen diete. Izan ere, garai hartan, akordio horiek merkataritza ardatz hartzen zuten eta nazioarteko merkataritza *liberalizatzeko* erretorika erabiltzen zen horiek saltzeko. Horregatik, emakume horien planteamenduez ari garenean MLI hitza erabiliko dugu. Planteamendu horietatik gaur egungo Mllei aurre egiten ikasi beharko dugu.

Itun eta akordio olde berria

NEGOZIATZEN ARI DIREN AKORDIOAK

- Kanada eta Europako Batasunaren arteko Ekonomia eta Merkataritza Akordioa (CETA).
- Amerikako Estatu Batuen eta Europako Batasunaren arteko Merkataritza eta Inbertsio Itun Transatlantikoa (TTIP).
- 23 herrialde (EB eta AEBak barne) hartzen dituen zerbitzuen merkataritza akordioa (TISA)
- Lankidetzak ekonomikoko akordio transpazifikoa (TPP), Pazifikoko hainbat herri hartzen dituenak, besteak beste, Txile, Australia, Japonia, AEBak, Peru eta Vietnam.
- Asiako hego-ekialdeko 10 herrialderen arteko Eskualdeko Elkarte Ekonomiko Integrala (RCEP).
- EB akordio desberdinak negoziatzen ari da herrialde hauekin: Txina, Japonia, Ekuador, Mercosur, etab.

HIRU OINARRI

Merkatueterako sarbidea

Arauen konbergentzia

Inbertsioak babesteko auzitegi pribatuak



3

**MLlen aurkako
erresistentzia
feminista Abya Yala-n**

3. MLlen aurkako erresistentzia feminista Abya Yala-n

Abya Yala-n⁴, MLlen aurkako erresistentzia feministaren momentu gorena, Ameriketako Merkataritza Librerako Esparruaren (FTAA) kontrako mugimendua izan zen. Gainera, hori mugimendu horren lorpen handiena ere izan zen, 2005ean FTAA garaitzea lortu baitzuten. FTAA 1994. urtean proposatu zen, kontinente osoa (Kubara izan ezik) Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunaren (NAFTA) antzeko akordio bat zabaltzeko asmoz. NAFTA AEBek, Kanadak eta Mexikok sinatu zuten eta 1994ko urtarrilean sartu zen indarrean. Denboraz (gehienbat, NAFTAk Mexikon zituen ondorioak sumatu zirenean), FTAAren kontrako erresistentzia herritarrak gora egin zuen. Horrez gain, itunaren kontra zeuden hainbat gobernuak boterea lortu zuten eta, horri esker ere, 2005ean proiektua behin betiko baztertu zen. Hala ere, botere korporatiboaren eta neoliberalismoaren aurrerabidea ez zen gelditu⁵.

Neoliberalismoaren hedapena eta botere korporatiboaren garrantzia ez ziren FTAArekin hasi. Aitzitik, horiek lotura zuzena dute 1980ko hamarkadako Doikuntza Estrukturaleko Programak (DEP) ezartzearekin. Programa horiek nazioarteko instituzio finantzarioek, besteak beste, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) inposatu zituzten, hamarkada horren hasieran hainbat herrialde-tan gertatutako kanpoko zorraren krisiaren ondorioz.

4 Konkistaren aurretik kontinenteari deitzeko erabiltzen zen izena. Gaur egun, kolonialismoaren kontrako protesta gisa erabiltzen da.

5 AEBek beren estrategia berrikusi zuten. Hala, aldebiko (esaterako, Peru eta Kolonbiarekin) eta eskualde azpiko itunak (esaterako, Erdialdeko Amerika eta Dominikar Errepublikarekin) hobetsi zituzten. Aldi berean, antzeko beste hainbat akordio ere sortu ziren (esaterako, Europako Batasunaren eta Erdialdeko Amerikaren arteko Elkarte Ekonomikoko Akordioak. Gaur egun ere, hedapen horrek aurrera jarraitzen du, esaterako, TPParekin.

Laburbilduz, FTAA ez zen izan garapen eredu hegemonikoa inposatzeko modu bakarra. Izan ere, garapen txarreko eredu hori alde zuzenetik ere bazen eta, gero ere, beste forma batzuk bilatu zituen. Era berean, erresistentzia feministak ez ziren FTAAren aurkako erresistentziara mugatu. Hala ere, egia esan, erresistentzia hori inflexio puntu bat izan zen, besteak beste, nagusi den sistema sozioekonomikoaren aurkako kritika izugarri sendotu zuelako.

3.1. Historiaren berrikuspen labur bat

Zer nolako bilakaera izan du kritika horrek urteetan zehar? Izugarri laburbilduz, errebaso hau egin dezakegu:

1980ko hamarkada amaieran eta 1990eko hamarkadan zehar, emakumeen mugimenduak edo mugimendu feministak (EMF) itxaropen handia izan zuen Nazio Batuen Erakundearen (NBE) batzarretan, bereziki, 1995ean Pekinen ospatutako batzarrean. Konfiantza osoa jarri zuten eskubideen lorpenean. Izan ere, aurretik, 1980ko hamarkadan, agenda neoliberal ekonomizista eta anker bat inposatu zen eta *hamarkada galdu* horren ostean, aurrerapausotzat hartu zuten batzar hori. MN eta NFren hitzetan, ordea, “eskubideak onartzen ziren bitartean merkatuak bizitza antolatu zigun”. Beraz, zenbait emakumerentzat konfiantza hori engainakorra izan zen. Aldi berean, DEPen inpaktuak argi eta garbi igartzen hasi ziren. Esan bezala, horiek neoliberalismoaren aitzindari izan ziren eskualdean. Garai hartan, Mexikon ere gizarte mugimenduak NAFTAren kontra antolatzen ari ziren. EMFren zati batek paper aktiboa izan zuen mobilizazio horietan.

1990eko hamarkada amaieratik 2000ko hamarkadaren erdialdera bitartean, kontinentean, antolakuntza handia eman zen eta MLlen kontrako borroka zuzena handitu zen. Era berean, garai horretan EMF ere indartu zen. Askotan bat ez bazetozen ere, arian-arian, mugimenduaren baitan zeuden ikuspuntu desberdinak hurbilduz joan ziren. Bat-egite horrekin batera planteamendu aldaketa bat eman zen. Hasierako planteamenduak akordioen inpaktu negatiboak saihesteko eta negoziatio prozesuetan gardentasun eta demokratizazio handiagoa lortzeko helburua zuen. Gero, ordea, akordioen kontrako jarrera integrala garatu zuten. Hala, ez zen zalantzan jartzen bakarrik horiek nola negoziatzen ziren eta edukien zati bat, baizik eta akordioak berak, goitik behera. Are gehiago, merkataritza libreko estrategia osoaren kontrako kritika sendotu zen. Hala, FTAAren kontrako jarrera eta MMEren, Munduko Bankuaren eta NDFren kontrako kritika uztartzen zituz-

ten. Beraz, EMFk neoliberalismoa errefusatzan zuen bere osotasunean; izan ere, MLLak kanpoko zorrari, lurraldeen militarizazio gero eta handiagoari eta abarri lotuta zeuden. Hala, EMFk neoliberalismoaren kritika indartu zuen. Ideia honek, bada, indarra hartu zuen: arazoa ez zen eredu horren zenbait aspektu, eredu bera baizik. Hala, EMFk historikoki landutako gaiak, esaterako sexu eta ugalketa eskubi-deak, gai ekonomikoekin lotu ziren. Arazoa neoliberalismoa zen... eta neoliberalismoa patriarkala zen.

EMFk garrantzi handia izan zuen FTAAren kontrako mugimendu mistoan. Emakumeak oso aktiboak izan ziren, bai erakunde mistoetakoak (gehienbat, sindikatuak eta ingurumenaren aldeko erakundeak) bai mistoak ez ziren horietakoak. Hortaz, eskualde mailan, garrantzi handiko antolakuntzak eman ziren, esaterako hauek: Emakumeen Mundu Martxa, Red Genero y Comercio, REMTE (Red de Mujeres Transformando la Economía), CLOC/Vía Campesina-ko emakumeak (Coordinadora Latinoamericana de Organizaciones del Campo), Mesoamericanas en Resistencia por una Vida Digna eta REPEM (Red de Educación Popular Entre Mujeres de Latinoamérica y el Caribe).

Feminismoak garrantzia handia izan zuen FTAAren kontrako erresistentzia osoan eta garrantzi hori argi eta garbi ikusten da erresistentzia horren lorpen handietan. Garrantzi horren adibide batzuk aipatuko ditugu. 1998an, txileko Santiago hiriburuan ospatutako Herrien lehenengo Gailurrean, Aliantza Sozial Kontinentala (ASC) sortu zen. Hori, funtsezko erakundea izan zen kontinente mailako erresistentzia koordinatzeari dagokionez. Momentu horretan bertan, Emakumeen Foro bat egin zen. Era berean. 1999an ASC gauzatu bezain pronto, Emakumeen Batzorde bat ere sortu zen bere baitan. Beste erresistentzia espazio nagusi bat FTAAren kontrako borrokarako Topaketa Hemisferikoak izan ziren. Horietako lehenengoa, 2001ean ospatu zen Habanan eta horretan, feminismitik eztabaidatzeko espazio bat bideratu zen. 2001ean Quebec-en ospatutako Herrien bigarren Gailurrean, itunek emakumeengan izan zuten eragina epaitzeko auzitegi bat antolatu zen. Horretan ere, azken deklarazioak planteamendu feministak biltzen ditu. Horrez gain, lehenengo urteetan, Ameriketarako Alternatiben dokumentuan⁶ ere Generoari buruzko kapitulu bat egin zen.

2002an Porto Alegren ospatutako Munduko Foro Sozialaren bigarren edizioan, FTAAren kontrako Kanpaina Kontinentala hasi zen. Horrek, ASCren lana zabaldu

nahi zuen (ordura arte negoziazioen jarraipen zehatzean ardazten zena), eztabaidak eta erresistentzia gizarte maila guztietara eramate asmoz. Horretako, lurraldeetan errotutako ekintzak egingo zituzten (esate baterako, Brasilen FTAAren inguruan egindako herri plebisitua). Herrietako erakundeetan oso errotuta zegoenez, EMFk presentzia handia izan zuen. Hala, adibidez, 2002an Quiton ospatutako FTAAren kontrako Erresistentzia Jardunaldietan, panel hau antolatu zen: “FTAAk Amerikako emakumeengan izan dituen inpaktuak”. Hortik, *Manifiesto de las mujeres de las Américas*⁷ manifestua sortu zen. Geroago, 2003an, MMEren aurrean alternatibak bilatzeko helburua zuen Herrien Foroa ospatu zen Cancunen. Horretan, Nazioarteko Foro bat egin zen merkataritza akordioen aurrean emakumeek dituzten eskubideen inguruan. Bertan egindako deklarazio politikoak hau eskatzen zien gobernuei: “emakumeen bizi kalitateari kalte egiten dioten akordioak ez sinatzea”⁸. Azkenean, 2005ean, FTAA gairatua izan zen.

Bistan denez, urte horietako mobilizazioa oso bizia izan zen, kontinente mailan. Erdialdeko Amerikan, aldiz, mobilizazio indartsuena geroago sortu zen, beste itun hauei lotuta: Dominikar Errepublikaren, Erdialdeko Amerikaren eta AEBen arteko merkataritza libreko ituna (DR-CAFTA) eta Puebla Panama Plana (PPP). Zenbait emakume kolektiboren eta mugimendu mistoetako zenbait emakumeren arteko antolakuntzak Red de Mesoamericanas en Resistencia por una Vida Digna⁹ sarea ekarri zuen.

2000ko hamarkadaz geroztik, neurri batean, koordinazio hori eta MLlen kontrako lana galduz joan da (Erdialdeko Amerikan gehiago iraun du). Izan ere, herrialde askotan gobernu progresistak daude eta, bada, nazio mailako prozesuetan jarri da arreta. EMFren zati batek energia asko jarri du gobernu horietan eragina izateko. Beste zati batek, ordea, laster galdu zuen instituzioen bidezko estrategiak eskaintzen zuen aukeraren itxaropena edo, zuzenean, ez zuen inoiz itxaropenik izan. Gaur egun, itun horien olde berria dela eta (TPP, G20-aren eta MMEren azken bilerak, etab.), hainbat emakumek kontinente mailako antolakuntza berreskuratzeko baldintzak daudela uste dute berriz ere.

Testu honetan, azken hamarkadetan emakume horiek izan dituzten esperientzietatik eratorritako planteamenduak biltzen ditugu. Azpimarratu behar dugu,

7 Ikus, hemen: http://movimientos.org/es/noalca/show_text.php%3Fkey%3D1152

8 Ikus, hemen: http://www.movimientos.org/es/remte/show_text.php%3Fkey%3D4372

9 FTAAren aurkako erresistentzia feministen berrikuspen baterako, ikus: REMTE (2015). Eta Erdialdeko Amerikan, DR-CAFTA eta PPPren aurkako erresistentzia feministen berrikuspen baterako, ikus: Mesoamericanas en resistencia (2014a).

bada, alde batetik, akordioen kontrako eta, zentzu zabalagoan, merkataritza librearen kontrako erresistentziak desberdintasun handiak izan dituela eskualde mailan. Esaterako, Mexiko neoliberalismoaren eta, hortaz, horren kontrako borrokaren aitzindari izan ohi da. Erdialdeko Amerikan, ordea, mobilizazio handiena bi hamarkada geroago eman zen. Horrekin lotuta, Latinoamerika ez da eskualde homogenea, beraz, ezin da horren inguruan kontaketa bakarra egin. Eskualde horretan barne desberdintasun handiak daude (herrialdeen artean eta herrialdeetan bertan). Era berean, herrialde bakoitzak ibilbide politiko eta sozioekonomiko desberdina izan du¹⁰. Testu honetan, Latinoamerika mailako erresistentzia antolatua kontatu nahi dugu, baina desberdintasun horiek gogoan izan behar ditugu.

Gainera, EMF ere ez da bat ere homogenea. Hala, MLlen kontrako antolakuntzaren lehenengo momentuetan sindikalismoari eta ingurumenaren babesari lotutako emakume mugimenduek hartu zuen parte. Testuinguru batzuetan, antolakuntza horretan EMF osoa aktibatuz joan zen, auzi feminista *klasikoak* lantzen zituen alderdia barne. Nolanahi ere, EMFri buruz ari garenean, FTAAren edo estrategia neoliberalaren beste inposizioen kontrako mobilizazioetan parte hartze aktiboa izan duen zati horretaz ari gara.

3.2. Erresistentziatik ikasitakoa: laburpen bat

Erresistentzia prozesuaren ondorioz, EMFk jarrera politiko bat garatu behar izan zuen auzi desberdinen aurrean. Denboraz, eztabaida horien inguruan adostasuna lortu da. Beste leku batzuetan MLlen alde berriaren aurrean eutsi nahi dugunontzat adostasun horiek, bada, ekarpen garrantzitsuak dira. Beste eztabaida batzuek, ordea, zabalik jarraitzen dute. Tentsio horiek lantzeak berak ere asko irakasten du; izan ere, erresistentziaren bidean nahitaez aurkituko ditugun hausnarketa nodoak erakusten dizkigu. Helburua ez da desadostasuna sustatzea; alderantziz, ondo bideratuz gero konstruktiboak izan daitezkeen eztabaidak identifikatzea da. Azkenik, ibilitako bide historikoak gaur egungo momentuari begiratzeko modu bat ekarri du. Hala, begiratzeko modu horrek gaurkotasuna irakurtzeko eta eraldaketarako proposamenak egiteko gakoak ematen dizkigu.

¹⁰ Gaur egungo politika formalari dagokionez, desberdintasunak daude gobernu progresisten eta kontserbadoreen artean. Hala ere, *progresismo* desberdinak ere badaude; desberdintasunak duela gutxiko ibilbide historikoan (estatu kolpeak, gerrak, iraultzak...) eta aspaldikoan (historia kolonial heterogeneoa); desberdintasunak gizarte mugimenduen antolakuntzan, etab.

Testu honetan hiru ikasketa partekatuko ditugu. Lehenik, Milen inpaktuaren azterketaz harago joan behar dugula, akordio horiek babesten duten sistema osoa salatuz. Akordio horien arazoa ez da beren eduki espezifikoak edo zenbait aldaketaren bidez ekidin beharreko inpaktu txarrak. Akordioak berak ere ez dira arazoa. Arazoa, aldiz, horien oinarrian dagoen sistema da. Sistema hori lehendik dator eta bera da akordio horiek sortzen dituen. Hala ere, akordio horiek porrot egiteko sistemak beste modu batzuk bilatuko ditu bere burua sendotzeko. Bigarrenik, sistema hori kapitalista/neoliberalak izateaz gain, patriarkala ere badela ikasi dugu. Akordio horien aurrean emakumeek gizonak baino inpaktu txarragoak jasaten dituzte. Baina, areago, hau da esaten ari garena: generoko desberdintasuna akordio horiek funtzionatzeko oinarria da; neoliberalismoak emakumeak lausengatzen ditu (ekintzailearen ideiarekin eta Milen sartzen dituzten generoko klausulekin) baina promes faltsuak dira. Izan ere, sistema hori bizitza gutxiesten duen eta emakumeak, testuinguru bortitz batean bizitza zaintzera behartzen dituen oinarri patriarkal batean sostengatzen da. Ikuskerak feminista, bada, ezinbestekoa da; bai Milak eta atzean dagoen proiektua ulertzeko eta bai horiei aurre egiteko. Hirugarrenik eta azkenik, emakumeen bizitzak eta esperientziak plataforma ezin hobea dira jokoan dagoena ulertzeko. Horietatik, FTAArekin jokatzeko zena, hau da, bizitzaren merkantilizazioa identifikatu ahal izan zen. Beraz, indar politikoa honetan datza: erresistentzia bizitzan bertan oinarritzea. Horrek posible egiten du erresistentzia demokratizatzea eta eustea. Bizitza merkantilizatzen bada bizitza osoa dago jokoan; eta hala bada, pertsona guztiok, garenaren eta egiten dugunaren dimentsio guztietan euts dezakegu. Eta erresistentziak gure bizitza hobetzen du, hemen eta orain; iraunkorragoa da. Hain zuzen, erresistentziaren indarra emakumeen bizi esperientzietan datza. Izan ere, gatazkaren muinean ekonomia dago... eta emakumeak, bizitza zaintzeko ardura inposatua duten heinean, ekonomiaren muinean daude.

Ekarpen hauen ostean, hiru tentsio ere partekatuko ditugu: EMFren autonomia-aren behararen inguruko galdera. Honen inguruan adostasuna dago: EMFk autonomia izan behar du garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko erakundeen aurrean (berezi, NBERen aurrean). Baina gizarte mugimendu mistoen eta gobernu progresisten aurrean autonomia izateari dagokionez, ideia desberdinak daude. Bigarren tentsioa (des)oreka ahul honekin du zerikusia: Milak ikuspegi tekniko batetik ala mobilizazio politikotik jorratu behar dira? Zenbateraino ezagutu behar ditugu akordioak aurre egiteko? *Gehiegi* jakiteak desmobilizatzen al du? Eta bi sektore sortzen al ditu: adituak eta kaltetuak? Zertan eman behar ditugu gure ener-

giak? Hirugarren tentsioak ikuspegi sektorialaren eta integralaren artean mugitzeko zailtasunekin du zerikusia. Miliei aurre egiteko, lehentasunezko gaiak bilatu behar ditugu gai sektorialak baztertuz? Ala bakoitzak egiten duen lanetik eta gai espezifikoeetatik lotzen gaituen hori bilatu behar dugu?

Azkenik, gaur egungo momentuari aurre egiteko gakoan inguruan hausnartuko dugu. Alde batetik, gaur egun gertatzen zaiguna ulertu ahal ozateko proiektu politiko eta ekonomiko neoliberalaren berrantolaketa ulertu behar dugu. Berrantolaketa horri begiratzean bere dimentsio heteropatriarkala ikusten saiatu behar dugu. Berriro ere, bizitatik eta emakumeen bizitzetatik begiratzea lagungarria da. Handik indarkeriaren forma desberdinen (heteropatriarkala, korporatiboa, narkoarena, etab.) areagotzea liskarraren muinean dagoela ikusiko dugu. Gaur egun jokoan dagoena identifikatzeko, lagungarria al da indarkeriaren paper zentrala eta indarkeria horren hari patriarkalen jarraitasuna ulertzea? Bigarren gakoa landuko ditugun alternatibak definitzeko pistekin du lotura. Gaur egun, tokiko ekonomia alternatiboak indartu behar ditugu. Horiek lurraldean errotzen dira, zaintza lehenesten dute eta burujabetza handiagoa duen beste bizimodu bat dakarte. Horrekin batera, lurraldean errotutako ekonomia horiek antolatzeke estrategiak garatu behar dira. Hala, antolaketa hori lortzeko eskualde mailako integrazio modu desberdinak bilatu behar dira eta integrazio horien atzean herriek izan behar dute, ez merkatuek.

Egin dezagun!





4

**lehen ikasketa:
Inpaktua
aztertzetik
sistema salatzera**

4. Lehen ikasketa: Inpaktua aztertze- tik sistema salatza

Akordio berri bat sinatzeko aukera sortzen denean, hau da sortzen zaigun lehenengo zalantza: zeintzuk izango lirateke akordio hori onartzearen ondorioak? Ezinbesteko galdera da hori, jakina, baina, horretan geratuko al gara? Zenbat energia jarri behar dugu horri erantzuteko? Milak oso konplexuak dira. Horiek guztiz ulertzea ez da erraza; lan handia behar du. Eta nolakoa da bilatzen dugun edo behar dugun azterketa hori? *Zientziazalea* ala *panfletozalea*?

FTAAren mehatxuaren aurrean, EMFk ahalegin handiak egin zituen horren ondorioak identifikatzeko. Hori funtsezko urratsa izan zen. Hala ere, pixkanaka, hau ulertu zuten: FTAAren ondorioak baino askoz gehiago zegoela jokoan. Hortaz, FTAAren atzean zegoen proiektu politiko-ekonomikoa ulertzea funtsezkoa zen. Izan ere, proiektu hori FTAAz harago zihoan eta lehendik zetorren.

4.1. Inpaktuaren azterketa beldurrik gabe eta herrietarik egitearen garrantzia

Datorrena aurreikusteko eta mobilizazioa sortzeko, funtsezko urratsa da inpaktuaren azterketa egitea. Akordio baten aurrean jarrera bat hartu ahal izateko, herritarrek horrek izango lituzken ondorioak ulertu behar dituzte, ezinbestez. Alde batetik, sinatzea ala ez sinatzea aukera politikotzat hartu behar da; ez, ordea, urrats ekidinezin edo naturaltzat. Bestetik, propaganda ofizialak akordio horien onurak besterik ez dituzte azpimarratzen, hortaz, gizarte mugimenduen betekizuna joriek izan daitezkeen benetako inpaktuak ezagutzera ematea da. Horretarako, azterketa ofizialistek erabiltzen dituzten suposizioekin hautsi be-

har dugu, horiek erredukzionistak eta engainakorrak izaten baitira¹¹. Adibidez, merkatu globalak opakak eta informazio fluxuak asimetrikoak badira, nola onartuko dugu informazio perfektuaren suposizioa? Azken finean, inpaktuaren azterketa funtsezkoa da baina, zein azterketak balio du? Inpaktuaren zer azterketa mota gomendatzen da?

FTAAren aurrean egindako mobilizazioek akordio horrek gizartean, ingurumenean eta ekonomian izan zitezkeen inpaktuak oso txarrak izango ziratekeela aurreikusi zuten. Alabaina, FTAA ez zen inoiz sinatu, beraz, ezin dugu jakin azterketa horiek zuzenak izan ziren ala ez. Hala ere, balorazio hori Mexikon sinatutako NAFTAren inguruan egin dezakegu. Ondorioa argia da: aurreikusitako inpaktuak zuzenak ziren. Are gehiago, HSren hitzetan: “esan genuen guztian arrazoa geneukan eta, areago, motz gelditu ginen”. Beste hitzez esanda, gizarte mugimenduak ez ziren katastrofistak izan; alderantziz, aurreikuspenei dago kienez, ausartago (eta pesimistago) ere izan zitezkeen. MLI batek sor dezakeen inpaktua aztertzerakoan, baliteke tremendismoko akusazioak egotea eta, etorkizuna aurreikusitakoa baino hobea balitz, zoritxarreko garaiak aurreikusi zituenak legitimitatea gal lezake. Baina ez dugu horren beldur izan behar. Beraz, nahi ditugun analisi horien lehenengo ezaugarria hau da: ausartak izatea.

Bigarrenik, zer mailatan egingo ditugu azterketak? Komeni da herrialde mailan egitea? Esaterako, akordioek herrialde jakin bateko lan bolumenean duten inpaktua aztertu behar dugu? Edo nazio bateko nekazaritza ekoizpenean duten inpaktua? Latinoamerikako esperientzian, egoera askotan, akordio horien sinadurak “asto lotua, tigre askea” analogia ekartzen digu burura. SRk analogia hori erabiltzen du DR-CAFTAren kasua definitzeko. Horretan, Erdialdeko Amerika harrapakin erraza zen AEBetako sabelkeriaren aurrean. Munduko hegemonian duten posizioari dagokionez, bi herrialderen arteko desoreka hain handia denean, interesgarria izan daiteke analisi agregatu horiek egoera ahulean dagoen herrialdearen ikuspuntutik egitea. Hau ez da, ordea, Europako Batasunetik sinadatezkeen akordioen kasua. Beraz, herrialdeak alderatzen dituen azterketarik ez da komeni. Hala ere, desoreka handia dagoen kasuetan ere, horrelako azterketa agregatu batek herrialdeetan bertan dauden desberdintasun handiak ezkututzen ditu. Hain zuzen ere, azterketak, herrialde desberdinetako herrita-

11 Txosten ortodoxoenak oreka orokorreko eruedetan oinarritzen dira. Eredu horiek suposizio hauek erabiltzen dituzte: merkatuan informazio perfektua, *faktoreen mugikortasun osoa* (hau da, ekoizpen faktoreek ez dute mugitzeko oztoporik) eta *faktoreen erabilera osoa* (besteak beste, enplegu osoa). Hala ere, NBEk berak merkatuaren ikuskera idiliko hori erabiltzen ez dituzten ereduak proposatzen ditu.

rreri egindako kaltearen aurrean elite nazionalek dituzten onurak estal ditzake. Zentzu horretan, akordio batek tartean dauden herrialdeetako eliteengan eta herritarrengan izango dituen ondorioak ulertu behar ditugu.

Hala, *herriak* kontzeptu zabalegia dela azpimarratu behar da. Horrek ere, kolektibo desberdinen egoeren arteko desberdintasunak estal ditzake: emakumeak eta gizonak, baserritarrak eta hiritarrak, talde etniko desberdinak, eskualde desberdinak, etab. Azkenik, egiten ditugun azterketek subjektu jakinen gaineko inpaktuak aztertu beharko lituzkete Horretarako, azterketa horiek gizarte talde desberdinak *gauza eskandalagarri horretan*, hau da, dominazio antizeko sistemak (DAS)¹² duten tokiaren arabera bereizi beharko lituzkete. MLLek inpaktua dute desberdintasun sakonak dituzten gizarteetan. Izan ere, merkatu kapitalistak desberdintasunak sortzeko makina bat dira eta MLLek merkatu horien ekintza marjina handitzen dute. Horregatik, horien ondorioen artean, antzinako desberdintasunak ugaritu eta desberdintasun berriak sortuko direla aurreikusten da. Beraz, azterketa agregatuak ez dira nahikoak, ezta herrialdeez gain eliteak eta herritarrak alderatzen dituzten azterketa horiek ere.

Normalean ahaztuak izaten diren gizarte taldeak ez *ahazteko* arreta berezia jarri behar dugu. Hori izan zen, hain zuzen ere, landa eremuko emakumeekin gertatu zena. Izan ere, haien inguruan ez zen gauza handirik jakin. Zenbait eremuri edo gairi lehentasuna eman behar zaien heinean, ekonomia sistemaren adar ahulenei erreparatu behar diegu. Esaterako, ez ditugu enpleguaren gaineko efektu agregatuak argitu behar, egoera ahulenean dauden lan sektoreen gainekoak baizik.

Azkenik, aurrerago azalduko dugunez, inpaktuaren azterketek ez dute merkataritza eremura edo adierazle kuantitatibo ekonomizistetara mugatu behar. Aitzitik, bizitza bera hartu behar dute, hau da, akordioek pertsonen bizitzan duten efektuak bilatu behar dituzte. Beraz, ez gara ekonomiaren hazkunde tasan duten efektuetara (hau da, merkataritza eremua) edo esportazio/inportazio mailara mugatuko, ezta soldaten bilakaerara ere. Zer dago adierazle agregatu makro horien atzean? Zer estaltzen du BPGren bilakaerak? Dagoen errentaz harago, zenbat diru behar dugu ondo bizitzeko? Eta zer da ondo bizitzea? Akordioen

¹² Kontzeptu horren bitartez, ideia adierazten dugu: habitatzten dugun sistema hainbat ardatz ditu (kapitalismoa, patriarkatua, kolonialismoa, arrazismoa, etc.). Beraz, bakoitzak duen pribilegio/zapalketa egoera horien intersekzioaren arabera da.

inpaktuak, bada, bizitza ona edo txarraren arabera aztertu behar ditugu. Eta egunerokoan ulergarriak diren hitzez azaldu behar ditugu.

4.2. Inpaktuaren azterketatik MLIak tresnatzat hartzera

Aurretik argudiatu bezala, inpaktuaren azterketa egitea ezinbestekoa da. Hala ere, baditu arriskuak. Beharbada, prozesu eta akordioen dimentsio politikoa ahaztea da arrisku handiena. Batzuetan, emaitzak ustez objektiboak izateko eta katastrofistatzat edo demagogotzat hartuak ez izateko, arrisku horretan erortzen gara. Beste hitzetan, hizkera zientifizistak eta objektibotasunaren asmoak inpaktuaren azterketa beregana dezakete. Hala, azken hamarkadetan ezagutza ilustratuari egindako kritika baztertzen da. Gizarte mugimenduek eta pentsamendu kritikoak ezagutza hegemonikoa kritikatu izan dute. Izan ere, ezagutza horrek egia objektibotzat du bere burua baina, oinarrian (beste edozein ezagutza bezalaxe) posizionamendu politiko bat du.

Arrisku hori bistakoa izan zen globalizazioaren inguruko lehenengo galdera egin zenean. Horren bitartez globalizazioaren *efektu on* eta *txarrak* ulertu nahi ziren; baina oinarrian ideia hau zegoen: globalizazioa, berez, prozesu apolitiko bat zela. Ikuspegi horretan oinarrituz, prozesu horrek ezaugarri desberdinak izan zitekeen, atzean zituen indarren korrelazioaren arabera. Era berean, ondorio desberdinak izan zitekeen. Hala ere, denboraz, globalizazioa proiektu politiko bat zela eta dela ikusi ahal izan dugu; globalizazioa ez da neutroa, globalizazioa neoliberal da.

Bigarren arriskua hau pentsatzea da: negoziatzen ari den akordia onartzen ez bada, ez da izango ondorio txarrik. Hau da, oinarrian dagoen *garapen* eredu ezartzeko prozesuetan akordioek duten garrantzia kontuan hartu beharrean, arazoa akordioak berak direla pentsatzea. Agian, kasurik argiena Erdialdeko Amerikako herrialdeena da. Horietan, DR-CAFTA eta Europako Batasunarekin elkartzeko akordioa sinatu baino askoz lehenagotik, *maquila* oso finkatuta zegoen. Orokorrean Abya Yalan esaten den bezala, FTAA 1980ko hamarkadako DEPen garaitik garatzen ari zen eredu neoliberal finkatzeko saiakera bat besterik ez zen izan. Baina, akordio horiek onartzen ez badira, proiektu hori finkatzeko beste hainbat modu bilatuko dira. Hala, arreta osoa inpaktuetan jartzean, horretaz

ez jabetzeko arriskua dugu. Beraz, aurretik aipatu dugun bezala, FTAA garaitu bazuten ere, gero, eskualdean, antzeko akordioak sinatu ziren.

Inpaktuetan arreta handiegia jartzearen azken arriskua (eta beharbada hau arriskutsuena da) hau da: sistema osoari aurre egin beharrean, inpaktu txarrak murrizteko helburua duen ikuspegi politikoa hartzea. MLIren antolakuntzaren eta bere dimentsio bakoitzak sektore eta prozesu jakinetan duen ondorioen ezagutza tekniko handia lortuz gero, dimentsio edo sektore desberdinetan aurreikusitako ondorio txarrak murrizteko moduak bilatzea oso tentagarria da. Izan ere, akordio baten aurkako erresistentzia globalak anbizio handiko eta neke handiko borroka politikoa dakar. Kaltea txikiagotzeko bi bide hauek daude: klausulak sartzea (gaur egun, aho batez errefusatutako estrategia) edo eztabaidatzen diren gaiak zatitzea eta horietako batzuk akordioetatik atertzea eta beste batzuk akordioetan sartzea (gaur egun estrategia horrek tentsioa sortzen du).

Arrisku horiek guztiak saihesteko, MLIak sistema jakin baten eta proiektu politiko-ekonomiko jakin baten zerbitzura dagoen tresnatzat hartzea proposatzen dugu. Akordioak aurretik eraikitzen ari zena sendotzen lagunduko duten arauak sortzeko modu bat dira. Garrantzitsuena, beraz, lehendik eta oinarrian dagoen proiektua identifikatzea da eta horretarako baliatu beharko ditugu inpaktuaren azterketak. Herriek egiten dituzten azterketa ausartek desberdintasunen birkonfigurazioan jarri behar dute arreta. Hala, akordioen zentzu globala identifika-



tzea izan beharko dute helburu. Azken finean, beraz, atzean dagoen proiektu politiko-ekonomikoa desestali behar dute.

Hala, bada, akordio horiek kapitalismo heteropatriarkalaren tresna diren heinean, horiei aurre egingo dien mobilizazio politikoarentzat inpaktuen azterketak tresna lagungarria izango dira. Bere garaian, FTAA nazioez gaindiko botereak eta interesak formalizatuko zituen belaunaldi berriko tresna bat zela desestali zen. Beraz, gaur hau galdetu beharko diogu gure buruari: zer sistema formalizatzen du Milen olde berriak?





5

**bigarren ikasketa:
sistema patriarkala
da, erresistentzia
feminista da**

5. Bigarren ikasketa: sistema patriarkala da, erresistentzia feminista da

Abya Yalako MLlen aurreko erresistentzia feministan, ahalegin handia egin zen horrek generoko harremanetan eta emakumeen boteretzean eta eskubideetan zer ondorio izan zezakeen jakiteko. Genero ikuspegitik, akordioak ez ziren neutroak eta hori ulertzea arazoaren sakontasuna ulertzeko lehenengo urrats bat izan zen. Izan ere, akordioak sostengatzen zituen proiektua, berez, patriarkala zen. Hala, jatorrizko sistema ekonomikoen izaera patriarkalak akordioen arrakasta ahalbidetzen zuen.

5.1. MLlen generoko inpaktuen identifikazioa

EMFren kolektibo askok egin zuten generoko inpaktuaren azterketa. Beharbada, Red Género y Comercio sarea izan zen hori gehien sistematizatu zuena¹³. Bidegainenek (2009) oso ondo laburbiltzen ditu Argentinan, Brasilen, txilen, Kolonbian, Mexikon eta Uruguain egindako azterketa koordinatuaren emaitzak. Hala, enpleguari dagokionez, emaitzak sexu arabera bereizi ziren. Bestalde, zaintzaren ekonomian familiarreko akordioen aldaketak ere ikusi ziren.

Laburbilduz, eskualdeko nazioarteko merkataritzaren gorakadak (1970ko hamarkadaz geroztik sustatua, hau da, FTAA eta beste akordio batzuk sinatu baino lehen) ez ditu emakumeen lan aukerak hobetu. Era berean, emakume gaituen lan eskaintza ez da behar bezala ustiatu. Areago. Efektu onak eman izan balira ere, ez dago zaintza ekonomiaren inguruko politika publikorik. Beraz, efektu horiek ez lirateke nahikoak izango gizarte eta genero berdintasunean inpaktu ona lortzeko.

¹³ Severek eta Narayanaswamyk (2006) mundu mailako generoaren eta merkataritzaren inguruko baliabideen gida bat eskaintzen dute. Randriamok (2006) aurkikuntza guztien laburpena egiten du.

Generoko inpaktuaren azterketek enpleguaren liberalizazio komertzialaren efektuan jarri zuten arreta. Horretarako, nazioarteko merkataritzan zuten presentziaren arabera bereizi ziren sektoreak: inportazioen kompetentziaren eraginez kaltetuak izango zirenak; esportazioei esker handituko zirenak... Oro har, sektoreen eta herrialdeen arabera egoera desberdin asko badago ere, esportaziorako merkataritzak lanpostu gutxi sortzen ditu eta are gutxiago emakumeentzat. Hala ere, hasieran, sektore batzuetan, emakumezkoen eskulan gehiago egon zen. Gero, berriz, gizonezkoen eskulanak pixkanaka emakumeena ordezkatu zuen. Horrez gain, enplegua sortzen denean ere, hori kalitate txikikoa da, sektore horiek balio erantsi gutxiko ondasunen esportazioetan espezializatuta daudelako. Hori da, adibidez, Erdialdeko Amerikako ehungintzaren sektoreko *maquila*-ren kasua. Aldi berean, inportazioak handitzeak (batzuetan esportazioak baino gehiago) ondorio latzak izan ditu hezkuntza maila altuagoa duten emakumeen enpleguan. Oro har, emakumezkoen enplegua ez da nabarmen handitu. Bai, ordea, enplegu horren prekarizazioa (kalitate handiko enpleguak gutxitzea eta lan baldintza eskasak dituzten enpleguak ugaritzea). Horrek, lan merkatu osoaren baldintzak okerragotzen ditu¹⁴.

Denda den, emakumezkoen enplegua handitzen bada ere, emakumeek *kanpoan* lan egite horrekin batera, *etxean* gehiegizko lan karga ematen da. Izan ere, zaintza lanak legeetatik eta segurtasun sistemetatik kanpo daude. Merkataritza librea doikuntza estrukturaleko prozesu baten zati bat da. Horrek eragina du zaintza lanen esparruko zerbitzu publikoetan (adibidez, hezkuntza eta osasun sistemak edo ura pribatizatzearekin). Hala, herritar sektore handien irisgarritasuna kaltetzen du eta zerbitzu horiek emakumeek musu-truk egindako lanak ordezkatzeko. Bestalde, zerbitzu publikorik ez dagoen espazioetan, zerbitzu pribatuen eskaintza sustatzen da, baina horiek diru-sarrera altuak dituztenek bakarrik erabil ditzakete. Zerbitzu horietako batzuk etxeko langileak kontratatuz betetzen dira. Baina hori oso lan sektore feminizatua eta prekariora da. Beraz, emakumeek pairatzen dute kalte handiena zerbitzu publikoak pribatizatzean. Kalte hori bi bide hauetatik ematen da: emakumeak zerbitzu horien erabiltzaile nagusiak direlako (etxeko arduradunak baitira) eta eurek, ordaindu gabeko lanaren bidez, zerbitzu falta hori estaltzen dutelako.

14 Merkataritza librearen aldeko ikuspegietatik horrek generoko soldata-etena txikiagotu du. Hala ere, MIIen aurkako borrokatzen den EMFk salatzen duenez, soldatak behetik berdinu dira eta, hortaz, ezin da urrats positibotzat jo.

Azkenik, landa eremuko emakumeengan ematen diren inpaktuen azterketa ez zen nahikoa izan baina, hala ere, landa eremuko ekonomian hainbat inpaktu txar identifikatu ahal izan zen. Ekoizle txikiek ezin izan zieten aurre egin inportatutako produktuei. Horren ondorioz, jende asko hirietara joan zen, emakume asko jornalari aritu ziren eta ekonomia informala handitu zen.

Orokorrean, prozesu bikoitza ematen da: emakumeen lan karga orokorra handitzea (ordaindua eta ez ordaindua) eta lan baldintzak okerragotzea (lanaren prekarizazioa eta zaintza lanak egiteko zailtasun handiagoak). Horren ondorioz, emakume asko pobretzen dira eta ia emakume guztien bizi baldintzek okerrera egiten dute.

Feministok esan bezala, generoari dagokionez, ez dago prozesu edo politika ekonomiko neutrorik (bai, ordea, generoari ezikusia egiten dioten politika asko). MLLak ere ez dira neutroak. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak agerian uztearren, itun horien generoko inpaktuak ulertu behar ditugu. Horiek ikusteko, sexu arabera bereizitako datuak funtsezko baliabide bat dira. Baina, harago ere, ekonomiaren ikuspegi zabalagoa behar dugu. Horrek ordaindu gabeko lana kontuan hartu eta etxeak espazio ekonomikotzat jo behar ditu. Eta, batez ere, hauen arteko harremanean oinarritu behar du: produkzioa eta ugalketa, lan ordaindua eta ez ordaindua, merkatua eta zaintza lanak.

5.2. Neoliberalismoaren iruzur liluragarria saihestea

Ba al dago MLLen ondorio txarrak konpentsatzeko modurik? Eta areago: emakumeentzat onuragarria den aukerarik sortzen al dute akordio horiek? MLLen kontrako erresistentzia zuzeneko urteetan, EMFren zati handi batek eztabaida handia piztu duten bi jarduera hauek jorratzen zituen aldi berean: ekoizpen proiektuak boteretze modu gisa sustatzea eta akordioetan generoko klausulak negoziatzea.

Zenbait hamarkadaz, Latinoamerikan, emakumeen ekoizpen proiektuak sutuki sustatu izan dira. Ekintzaitzaren logikan, horiek boteretze ekonomikoaren gakoa izango zirela uste zen. Hala, emakume erakundeak eta nekazaritza erakundeak izan ziren estrategia horren helburu espezifikoak. Estrategia horren atzean, GGKEen, gobernuen eta nazioarteko erakundeen (Munduko Bankuak, besteak beste, merkataritza librearen nazioarteko arkitekturan parte hartzen zuen) nazioarteko

lankidetzaz zegoen. Hala, estrategia horren une gorenean, hau zen gai nagusia: ekintzailtzaz sustatzeko zer politika publikok konpentsa zitezkeen merkataritza librearen arriskuak eta minimiza zitezkeen horrek emakumeengan zituen inpaktu txarrak¹⁵? Helburua emakume ekintzaileek MLIk sortzen zituen merkaturko aukerak baliatzea zen.

Denboraz, EMFren baitan ados daude honekin: itzaropen horiek hutsak ziren. Ekoizpen proiektuek ez dute boteretze ekonomikorik sortu. Aitzitik, biziraupen hutsa eta lan karga gehiago eman die emakumeei. Aldi berean, proiektu horiek emakumeen arazo ekonomikoen eta horien konponbideen ikuspegi indibidualista errotu dute. TBren hitzetan “zure kabuz aurrera atera zaitezke” diskurtso hori en-gainakorra eta kaltegarria izan da.

Beste *iruzur liluragarri* batek eztabaida latzak piztu zituen MLIen kontrako erresistentzia feministaren baitan. Hori akordioetan klausula sozialak sartzeko borrokaren egokitasunaren ingurukoa izan zen. Klausula horiek eskubideak (giza eskubideak, lan eskubideak, etab.) bermatzea zuten helburu¹⁶. Generoko klausulak ere bazeuden. Horien bitartez, MLIek emakumeentzat kalitatezko enplegua sortzea bermatu nahi zuten. Baina, aurrerapauso soziala al zen ala eredu blindatzea besterik ez?

EMFren zati batek, ahalegin handia egin zuen klausula horiek definitzeko, negoziatzeetan eragina izateko, sartutako klausulak betetzen zirela bermatuko zituzten mekanismoak identifikatzeko, etab. Lan hori egiteko denbora eta esfortzu handia behar izan zen. Aldi berean, eduki teknikoak maneiatzeko trebezia ere behar izan zen (hori aurrerago ikusiko dugun bigarren tentsioarekin lotzen da). Hala, estrategia hori inpaktuen azterketari eta ondorio txarrak txikiagotzeko ahaleginari lotuta dago.

EMFren beste sektore batentzat, aldiz, estrategia hori okerra zen eta, neurri batean, neoliberalismoaren alde lan egiten zuen. Izan ere, ideia hau sortzen zuen: akordioak onberagoak izan zitezkeela eta proiektu neoliberalaren aurrerabidea eta eskubideak eta berdintasuna babestea bateragarriak zirela. Era berean, estrategia horrek indarra kentzen zion akordioen kontrako erresistentziari, horiek sina-

15 Hala, adibidez, Higgins (2012) dokumentuak “praktika onak identifikatzen ditu eta politiken inguruko gida bat eskaintzen du honen inguruan: nola susta dezakete politika publikoek emakume ekintzaileen, ekoizleen eta esportazio enpresen zuzendari diren emakumeen parte hartzea, merkataritza itunen bidez merkaturko aukerei iristeari dagokionez”.

16 Ikus, adibidez, DR-CAFTAren liburu zuria.

5.3. Neoliberalismoaren proiektua patriarkala da

Norabide bakarreko ikuspegi batek lerro zuzen batean sumatzen du akordioek genero harremanen desberdintasuna sendotzen dutela. Baina ikuspegi horretaz harago, galdera hau sortu zen: zeintzuk ziren, aldez aurretik, sistema ekonomikoaren ezaugarriak? Izan ere, horietan oinarritzen zen merkataritza librea *garapenerako* estrategia gisa. Gero, MLIek emakumeengan zituzten ondorioen ikuspegia gainditzean, galdera hori sakondu zen: Zer neurritan ziren generoko harremanak neoliberalismoaren egituratzaile? Eta zer neurritan sendotzen zituen neoliberalismoak? Ondorioa argia izan zen: akordioek finkatzen zuten neoliberalismoa, proiektu kapitalista eta neoliberal izateaz gain, proiektu patriarkala zen. Feminismoak akordioen eta atzean zegoen proiektuaren kontrako erresistentzian parte hartu behar zuen. Eta erresistentzia horrek feminismoz blai egin behar zuen.

EMFk neoliberalismoa lanaren banaketa sexuarekin zein zentzutan oinarritzen den ulertu zuen. Emakumeek, zaintzaile diren heinean, familia eta erkidegoa aurrera ateratzeko ardura hartzen dute beren gain, lan ez ordainduaren bitartez. Hala, nekazaritza ekonomia hondatzean, zerbitzu publikoak pribatizatzean, lana prekarizatzean eta oinarrizko ondasunak garestitzean, emakumeek egindako lan horrek ihes-balbula bat eskaintzen du bizi baldintzak okerragotzearen aurrean. Horri esker, beraz, ez da hondamendi ekonomikorik ematen. Aldi berean, eskulan merkean oinarritzen den negozio esportatzaileak arrakasta izateko, lanaren banaketa sexuala funtsezkoa da. Hortaz, generoko klausulek ezin dute emakumeen boteretzea sustatuko duen lan duina bermatu. Aitzitik, MLIek emakumeen eskulan merkea lortu nahi dute, hortik, lan merkatu osoa beherantz ekartzeko.

Zentzu zabalago batean, neoliberalismoa emakumeen gorputzaren eta lanaren kontrolean oinarritzen da. Kontrol horrek, emakumeak mehatxatutako gizarte osoa erreskatatzera behartzen ditu eta, hala, eskulan merkea bermatzen du. Neoliberalismoan, emakumeen gorputza kontsumo eta esplotazio objektu nagusi bilakatzen da. Hitz batez, akordioen arrakasta posible da egitura patriarkal batean oinarritzen delako. Aldi berean akordioen ondorioek egitura hori indartu eta sakondu egiten dute.

FTTAren kontrako erresistentzian, gizarte mugimenduek, oro har, generoko inpaktu txarrak zeudela onartu zuten. Onarpen horrek ondorio praktikoak hauek izan zituen, besteak beste: mobilizazio politikoko espazio orok (esaterako, ezta-

baida mahaiak) emakumeak izan behar zituztela onartzea eta inpaktu horiez informatzeko eta eztabaidatzeko espazio espezifikoak eratzea (esaterako, difusio eta heziketa materialak). Era berean, gai hori lantzeko egiturak ere sortu ziren (esaterako ASCren Emakumeen Batzordea). Hala ere, gizarte mugimenduek ikuspegi feministen aurrean erakutsi zuten irekitasun horrek zenbait muga izan zituen eta ditu.


Alde batetik, inpaktu negatiboak merkataritzaren dimentsioan besterik ez ziren onartzen, lan ez ordainduen gaineko inpaktuei ezikusia eginez. Izan ere, lan ez ordainduak askotan ez ziren aipatzen ere¹⁷. Beste alde batetik, NSk aipatzen duen bezala, “memoria hauskorra da”. Gaur egun, bada, borrokarako espazioak berrantolatzen ari dira eta, antza denez, gai horiek lantzeko borrokatu beharra dago, berriz ere. Beraz, berriz ere, genero neutraltasuna dagoela suposatzen da baina dimentsio horri ez zaio jaramonik egiten. Ikasi dugunez, edozein prozesu ekonomikok ezikusia egin diezaioke (eta egin ohi dio) generoari. Baina hori onartu beharrean etengabe justifikatu eta frogatu behar izaten da inpaktu desberdin hori.

Are gutxiago, emakumeengan inpaktuak okerragoak zirela onartu zenean ere, ez zen barneratu sistema hegemonikoa patriarkala zela. Hortaz, kapitalismoak/neoliberalismoak sortzen dituen horiez gain, ez da genero harremaneko beste desberdintasunik onartzen. Adibidez, onar daiteke *maquila*-n lan egiten duten emakumeen lan baldintzak prekarioagoak direla, baina inola ere ez da onartuko horrek emakumeek familian eta erkidegoan duten rolari lotuta dagoela.

Honekin lotuta, espezifikoki feministak diren gaiak ez dira inoiz adostasunerako edo borroka komunerako elementu. Era berean, ez da onartzen neoliberalismoaren aurkako erresistentzia espazioetan botere harreman horiek hainbat modura erabiltzen direla: batzuk argiagoak eta larriagoak eta beste batzuk lausoagoak. Horren adibide argia da Herrien Autodeterminaziorako Erdialdeko Amerikako Foroan gertatutako sexu bortxaketa. Izan ere, emakumeek hori salatu zutenean gizon askoren jarrera errezelozkoa eta estigmatizaziozkoa izan zen.

Hitz batez, hau ikasi zen: MLlen atzean dagoen proiektua patriarkala dela eta generoko desberdintasunean oinarritzen dela eta hori sakontzen duela. Horregatik,

¹⁷ Hori, esate baterako, Equipo Maíz (2007) dokumentuan gertatzen da. Hori MLlek emakumeengan dituzten inpaktua ulertzeko tresna erabilgarria da: hirietara emigratzea, *maquila*-ko lan-baldintzak, merkataritza eta zerbitzuko negozioetako (etxeko enplegua barne) eta biziraupeneko negozioetako lan baldintzak. Hala ere, emakumeen beren gain hartzen duten lan ez ordaindua, lan horiek zer nolako baldintzatan egiten dituzten eta lan horiek sistema mantentzeko duten garrantzia ez dira aipatzen.



MLlen kontrako erresistentziak feminista izan behar du. EMFk akordioen eta neoliberalismoaren aurrean mobilizatu behar du, horien iruzur liluragarriak saihestuz. Era berean, gizarte mugimendu mistoek aurrean duten sistemaren dimentsio patriarkalari aurre egin behar diote. Sistema ulertzen saiatzen direnean, generoa barneratu behar dute, ardatz egituratzaile gisa. Hala, ekonomiaren ikuspegi zabalagoa erabili behar dute, ugalketaren esparrua ere kontuan hartuz.

Erresistentziarako espazioak sortzen direnean, legitimitate politikoa eman behar diote feminismoari, egituretan eta antolakuntzetan. Espazio horiek ausartak izan behar dute, espazio horietan dinamika patriarkalak errepikatzeari uzteko. Hala, bada, feminismoaren gaiak borrokan komunean barneratu behar dira, horietatik desegiten baita neoliberalismoaren dimentsio patriarkala. Era berean, hau ere ikasi zen: hau guztia inoiz amaitzen ez den lana da. Oso zaila da neoliberalismoaren kontrako erresistentzia feminismoz blai egitea.





6

**hirugarren ikasketa:
(emakumeen)
bizitzatik eustea eta
begiratzea**

6. Hirugarren ikasketa: (emakumeen) bizitzatik eustea eta begiratzea

Lehenengo ikasketak inpaktu horien atzean dagoen proiektua zalantzan jartzera eramaten gaitu. Akordioak berak ez dira eztabaidaren mamia. Aitzitik, mamia akordio horiek arautzen duten eredua da, hain zuzen ere, eredu ekonomikoa. Horrez gain, bigarren ikasketak erakusten digun bezala, eredu hori ez da kapitalista/neoliberalak bakarrik; patriarkala ere bada. Baina... Nondik begiratu behar diogu eredu horri? EMFren proposamena argia da: bizitzatik bertatik. Eta horretarako estrategikoa da emakume desberdinen bizi esperientzietatik begiratzea. Horien esperientzien arabera, emakumeak ekonomiaren muinean daudela ikus dezakegu; izan ere, ekonomia produkzio/ugalketa artikulazioa da. Era berean, MLlek sendotzen duten proiektu neoliberal patriarkalarekin artikulazio oso hori dago jokoan: proiektua bizitza merkantilizatzea da. Bizitza, bada, gatazkaren muinean dago; beraz, hortik abiatu behar da erresistentzia. Hori da bizitza demokratizatzeko eta iraunkor egiteko aukera bakarra.

6.1. Emakumeak ekonomiaren(?) muinean

Ekonomia gatazkaren muinean dago eta emakumeak ekonomiaren muinean daude. Horrek ez du esan nahi emakumeak prozesu ekonomikoaren eta, bereziki, MLlen biktimak besterik ez direla. Aitzitik, emakumeak subjektu ekonomikoak dira, hau da, subjektu protagonistak.

Aurreko ikasketan honako hau aitortu behar dela ondorioztatu dugu: emakumeek eta gizonek, merkatuarekin dute harremanaren arabera, lan desberdinak egiten dituzte; neurri handi batean, gizonek lan ordaindua egiten dute eta emakumeek, gehienbat, lan ez ordaindua. Baina, ez bagara horretara mugatzen hau galdetuko

diogu gure buruari: zein da lan horiek gizartean eta ekonomian duten zentzia? Emakumeek egiten dituzten lanak dira, hain zuzen ere, sistema doitzen dutenak. Izan ere, merkatuaren baldintzak gero eta gogorragoak dira eta erantzukizun publikoa gero eta eskasagoa. Hala, emakumeek egiten dituzten lanek familiak eta erkidegoak mantentzen dituzte. Hala, lan ez ordaindua egiten dute, etxean eta laboreetan, erkidegoan sare-lana egiten dute, lurra eta ura zaintzeko lanak, etab. Hala, aurrera jarraitzen lagunduko dien diru sarrerak lortzeko edozein aukera bilatzen dute. Emakumeen jarduera ekonomikoa mugikorra eta malgua da eta lan anitz uztartzen ditu. Helburua hau da: ahal den neurrian, bizitzaren sostengua bermatzea. Azken batean, emakumeek beren jarduera bizitza sostengatzeko moldatzen dute, beraz, sistema ekonomikoaren doikuntzaren muinean daude.

Dena den, ekonomiaz ari garenean, zertaz ari gara? Emakumeen esperientziatik ekonomiaren zentzia bera eztabaidatzen da. Hala, ekonomia merkatuetatik pentsatzeari uzten zaio eta bizitzatik pentsatzen hasten da. Lana diru sarrerak ematen dituzten jardueraz harago doala ulertu behar dugu. Baina are garrantzitsuagoa da hau ulertzea: ekonomia bizitzarako beharrezkoak diren baliabideak sortzea dela. Sistema ekonomikoak pertsonen eta natura beraren ugalketa prozesuak laguntzen (edo oztopatzen) duten prozesu eta lan guztiak hartzen ditu. TTren hitzetan, ekonomia “bizitzaren ugalketa sarea” dela ulertu behar dugu. Ikuspegi berri horri, zenbaitek ekonomia feminista esaten diote.

Sistema ekonomikoaren funtzionamendu ona edo txarra ez da adierazle agregatuaren bitartez neurtzen (diru sarrerak, enplegu tasak, esportazio eta inportazio mailak, BPGren aldaketak...); aitzitik, jendearen bizitzan eta naturan duen inpaktuaren arabera neurtuko da. Lehen esan bezala, MLIen inpaktua eta akordio horien atzean dagoen proiektua pertsonen eguneroko bizitza on edo txarretik aztertzea behar da. Eta, batez ere, pertsonen eta herriek hauek erabakitzeak duten ahalmenetik: ekonomiaren noranzkoa eta nondikoa, zer egitura ekonomiko behar den zer bizitza bizitzeko, etab.

Ekonomia bizitzatik eta emakumeen esperientzietatik ikustean, normalean ikusten ez diren fenomenoak ikusten dira. Hala, merkatuetatik ikusten ez ziren prozesuak bistako bihurtzen dira; edota alde aurretik ikusten dira lehen denbora behar zutenak. Hori da, hain zuzen ere, itunekin gertatu zena.

Bizitzatik eta emakumeengandik begiratzean, “gakoa non zegoen” ulertu ahal izan zen, TTren hitzetan. Indigenen mugimenduarekin eta mugimendu ekologistarekin batera, EMFk hau identifikatu zuen: gakoa ez zela zenbait sektore, eskulana esplo-

tatuz, errentagarri bihurtzea. Aitzitik, hau zen akordioekin (eta zentzu zabalago batean neoliberalismoarekin) jokatzeko zena: amalurra-ren eta pertsona guztien lanaren jabe pribatu egitea eta bizitzaren behar eta alderdi guztiak merkaturatu jartzea.

Hala, “gatibutasun maila” desberdinak daude, baina neoliberalismoaren ildoak bizitza duenaren dimentsio guztiak merkaturatu jartzea da. Plusbalioa bizitza merkantilizatuz lortzen da. Beraz, akordioek arauak ezarri nahi dituzte eta, horien bidez, bizitza bat ere prozesu horretatik kanpo ez geratzeko baldintzak ezartzen dituzte: ez horretatik kanpo (partzialki) bizi den pertsonarik, ez beste bide batzuetatik (partzialki) asetzen den beharrik, ez beste logika batzuetan oinarritutako lanik, ez jabetza pribatu merkantilizatua mugatzen duen ondasun komunik.

6.2. Bizitzatik: erresistentzia demokratizatzea eta sostengatzea

Bizitzatik begiratzean, proiektu ekonomikoa bizitza bera merkantilizatzea dela ulertzen da. Behin hori ulertuta, erresistentziarako aukera berriak sortzen dira.

Lehenik, borrokarako espazio berriak sortzen dira. Borroka soldatapeko lanean baldin badago (eta akordioaren arabera, sektore batzuetan beste batzuetan baino gehiago) sektore horietan lan egiten dutenak besterik ez daude erresistentziaren muinean. Gainontzekoek elkartasun ariketa egin beharko dute eta horrek besteengan izan dezakeen zeharkako eragina ulertzen saiatu beharko dute. Baina, egia esan, bizitza osoa da negozioa egiteko esparrua eta, hortaz, pertsona guztiok horren parte sentitzen gara eta aurka egin diezaiogegu. Hau da, guztiok gaude dimentsio anitzetan nahastuta. Beraz, ez dugu gure identitateko alderdi espezifiko eta bakanetatik eutsi behar (maquila-ko soldatapeko langile bezala, edo ura kendu zaion nekazari bezala, edo...). Aitzitik, garenaren osotasunetik eutsi behar dugu. Tren hitzetan: “Guztiok daukagu boterea guztiok gaudelako menpe”. Erresistentzia demokratizatzen da.

Borroka espazioak zabaltzean, erresistentzia dimentsio berriak agertzen dira. Hain zuzen ere, bizimoduetatik eta kontsumotik egiten den erresistentziak garrantzi handia hartu du. EMFren esperientziatik hori, besteak beste, produkzio proiektuen ideia berrikusteari lotuta egon da: gero eta diru sarrera handiagoak sortzea, berez, ez da helburu bat; aitzitik, zer kontsumo maila nahi dugun galdetu behar diogu gure buruari. Era berean, gure beharrak era kole-

ktiboan eta ez merkantilizatuan asetzeko bestelako baliabideak aztertu behar ditugu. Subjektu eta borroka espazio berriak sortzen dira. Adibidez, familia eta etxea erresistentziarako espazio bezala berreskura daiteke; eremu horretan kudeatzen baita egunero bizitzaren ugalketa eta, hortaz, bertan negoziatzen eta erabakitzen baita ekonomia.

Borrokarako espazioak zabaltzeko, egunerokotasunaren espazioak, bizimoduak eta egunerokoa bera politizatu behar ditugu. Horretarako, horietan gertatzen dena MLEkin lotu behar dugu. Berrero ere, bizitzatik begiratzeak prozesu honi laguntzen dio. Izan ere, hala, pertsona asko jabetzen dira ezagutza ekonomiko eta politikoaz. Eredua egitura handietatik edo akordioetatik zalantzan jartzen denean, pertsona gehienek urrun ikusten dute, beraiekin harremanik izango ez balu bezala. Ondorioz, ez dute beren burua horretaz hitz egiteko, zalantzan jartzeko edo kritika politikoa egiteko gai ikusten. Pertsona adituak dira, ordea, gertaeren zentzu politikoa uler dezaketenak eta guri azalduko digutenak. Baina eredu ekonomikoa bizitzatik beratik zalantzan jartzen denean pertsona guztiek horri buruz hitz egiteko, ulertzeko eta politizatzekeo legitimitatea dute. Hortaz, ekonomia bizitzatik eztabaidatzeak jarrera aktiboa hartzen laguntzen du. Ezagutza ekonomikoaren demokratizazio hori, beraz, erresistentzia marjinak handitzen ditu. Kontu hau alderdi teknikoaren eta mobilizazio politikoaren arteko oreka ahularekin lotuta dago, baina geroago landuko dugu hori.

Azkenik, erresistentzia gure bizitzetatik bada eta prozesu handiek (akordioak, merkataritza librea, sistema, etab.) gure bizitzan duten eragina igartzen badugu, erresistentziari eustea errazagoa da. Alde batetik, borroka hori ez delako modu abstraktuan ulertzen. Hau da, hori ez da guri ez dagokigun botere handi baten kontrako borroka bat. Aitzitik, hemen eta orain bizi kalitatea hobetzeko borroka bilakatzen da. Bizitza osoa politizatzean, bizitza bera eta gu geu tartean gaudela ulertzen dugu. Eta, TTK azaltzen duen bezala, hori behin betikoa da. Beste alde batetik, egunerokoa, pertsonen arteko harremanak eta bizimoduak sakon eraldatzea da aldaketa prozesuak gizartean finkatzeko modu bakarra.

Beraz, honako hau da erresistentzia demokratizatzekeo eta sostengatzeko gakoak: erresistentzia makro edo merkataritza fenomenoetatik azaldu beharrean, horri hurbileko bizitza konkretutik ekitea.

6.3. Emakumeak bizitzatiko eta bizitzaren aldeko alternatibaren muinean

Emakumeak gatazkaren muinean daude, baita alternatibaren muinean ere. Denboraz, emakumeek alternatiba edo erresistentzia gisa egiten dituzten praktikak identifikatu dira.

Egunero familia aurrera ateratzeko lana bera lehenengo erresistentzia maila bat da. Izan ere, horren atzean honako gogoeta hau dago: bizitza guztiak dira ezinbestekoak, bizitza guztiek merezi dute aurrera ateratzeko ahalegina egitea. Baina emakumeek familiak sostengatzeaz gain, prozesu politiko zabalagoak ere sortu dituzte. Esaterako, Venezuelan, emakume askok funtsezko papera izan dute prozesu bolivartarraren egituretan (uraren eta energiaren inguruko mahai teknikoak, hornitze batzordeak, osasunaren sustapena, etab.). Era berean, protagonistak izan dira ekonomia sozial eta solidarioari lotutako proiektu kolektiboetan, esaterako, Argentinan; baita Erdialdeko Amerikan martxan jarritako produkzio proiektuetan ere. Horietan, emakumeak boteretzea sustatu da, prozesu kolektibo eta ez indibidual gisa.

Bestalde, emakumeek lurra babestu dute modu aktibo, konprometitu eta iraunkorrean. Nekazaritza erreformak egin dituzten herrialdeetan, esaterako, Nikaraguan, lurraren jabe izateari dagokionez, erreformak ez die on handirik egin emakumeei. Hala ere, emakumeak, denboraz, leialtasun handiagoa erakutsi dute. Ez dute lurra saldu, TTren hitzetan, hori “biziraupenerako muga”-tzat jotzen baitute. Izan ere, haientzat ez da lanari lotutako leku bat bakarrik, bizitza osoari lotutakoa baizik. Gaur egun, emakume horiek defendatzaile aktiboak dira (neo)estraktibismo olde berriaren aurka.

Indibidualagoak edo kolektiboagoak, ekintza ugari horietan, emakumeek beren kabuz edo estatuaren edo lankidetzaren bitartez lor ditzaketen “baliabide pirriko”-en erabilera izugarri efizientea lortu dute (TB). Hala, diru gutxirekin ekimen desberdinak jarri ahal izan dira martxan, adibidez, ortu familiarrak edo landareak ereitea. Gaur egun, landa eremuko familien elikadura segurtasuna bermatzen dituzten elikadura proiektuak ekimen horietan oinarritzen dira. Hau guztia, bada, emakumeek bizitzaren ugalketarekin duten konpromiso handi horretan oinarritzen da. “Zaintza logika” hori gaur egun alternatibak pentsatzeko giltzarria da.

Hala ere, horrekin batera, emakumeak erabiliak izateko arrisku handia ere sortzen da. Arrisku hori produkzio proiektuei eta, besteak beste, berreskuratutako fabriken esperientziei dagokie. Venezuelako apustu bolivartarrean ere arrisku hori dago. Horretan ere, estatuak bere ardurak uzteko arriskua du; izan ere, emakumeek instituzioek egiten ez dituzten lanak egingo dituzte. Adibidez, Misión Barrio Adentro programak Venezuelako leku xumeetan osasun zerbitzuak ematen ditu. Horretan zerbait ondo ez doanean, ordea, estatuari bere erantzukizuna betetzeko erreklamatu beharrean, osasun batzordeei erreklamatzeko zaie (horiek osatzen dituzten pertsona gehienak emakumeak dira). ACren hitzetan, tentazio handia da: “hor daude, antolatuta daude eta adiskideak dira”.

Aldi berean, emakumeak erabiltzea gehiegi kritikatzeko badugu, emakumeen erabakitzeko ahalmena eta autonomia gutxiesten dugu. Hala, ez dugu kontuan hartzen proiektu horien bitartez, pobrezia aurre egiteaz gain, etxez kanpoko espazio askotan parte hartzen dutela. Hala, gaitasunak eta eskubideak dituzten subjektuak eta herritarrak direla frogatu dute emakumeek.

Oro har, emakumeen esperientzia ekonomikotik, “eraldaketako etorkizun komuna” lortzeko aukera ematen da, MLren hitzetan. Alde batetik, jokoan dagoenaren ikuspegi integralagoa eta holistikoagoa izateko aukera sortzen da, hori eguneroko bizitza onari/txarrari lotuz. Izan ere, emakumeen jarduerak eguneroko bizitza sostengatzearen ingurukoak dira eta horrek prozesu guztiak biltzen ditu. Bestetik, merkatutik etorri beharrean, bizitzatik beratik datorren aldaketako etorkizun bat pentsa daiteke.

Baina aldi berean, bi arrisku agertzen dira. Lehena, aipatu bezala, emakumeak erabiltzearena. Horri aurre egiteko, erresistentziaren muinean genero harreman desberdinen gatazka jarri behar dugu. Emakumeen esperientzietatik alternatibak sortzeak desberdintasun hori zalantzan jartzea eskatzen du. Horretarako, gizonak (adiskideak, neoliberalismoak kaltetutako gizonak) euren pribilegioak galdu behar dituzte.

Bigarrena, ahots gehiago duten emakumeen (hiritarrak, klase ertainekoak, profesionalak, mestizoak) esperientzietatik bakarrik hitz egiteko arriskua da. Autokritika egitearren, oker hori askotan egiten dela onartu behar dugu. Horren aurrean, beharrezkoa da ulermenaren epizentroan emakume xumeak, afrikar jatorrikoak, indigenak eta nekazariak egotea. Horien ezagutzak, praktikak eta iritziak lehenetsi behar ditugu erresistentziaren erpinean. Proposamen politiko horrek gero eta indar handiagoa du. Zenbait emakumek ekonomia femi-

nista deskoloniala deitzen diote. Apustu hori funtsezkoa da proiektu hegemonikoaren dimentsio koloniala ulertu ahal izateko.





7

lehenengo tentsioa: Zer nolako autonomia?

7. Lehenengo tentsioa: Zer nolako autonomia?

EMLen aurkako erresistentzian EMF eta beste zenbait gizarte mugimendu misto elkartu ziren. Zenbait gobernu progresistarekin ere bat egin zuten. Aldi berean, gizarte mugimendu askok, EMF barne, garapenerako lankidetzatik (GGKEena, gobernuena eta multilateralala) dirua jaso edo horrekin batera jarduerak antolatzen zituzten. Nola kudeatu aliantza eta harreman horiek guztiak?

7.1. Lankidetzaren eta Nazio Batuen aurrean beharrezkoa den autonomia

EMFn adostasuna lortu da honen inguruan: nazioarteko lankidetzaren eta Nazio Batuen sistemaren aurrean autonomia beharrezkoa da. EMFk bide horietatik diru laguntza handia heldu dela onartzen du. Izan ere, laguntza horri esker oso ekin-tza interesgarriak egin ahal izan dira; eguneroko lanetik ikerketa eta heziketa prozesuetan koordinazio eta sistematizazio maila handiak lortzera. Horrek, indarra ematen zuen negoziazio eta/edo mobilizazio prozesuetan.

Hala ere, badago kanpoko baliabideetatik autonomoa izan behar duen oinarritzko ekintza maila bat. Izan ere, laguntza horrek arriskuak dakartza. Hala, auto kritika handia egiten zaio EMFn GKEek izan duten garrantziari eta instituzionalizazioari. Zentzu horretan, kanpoko baliabiderik gabe lan egiteko gaitasuna murriztu da eta, ondorioz, finantzatzaileek agenda markatu diote mugimenduari, lehenetsunak zehaztuz eta gaiak zatikatuz. Hala, EMFk, batzuetan, eskubide desberdinak partzelatzeko ariketa aktibo baten menpe izan da. Partzelatze horren atzean agente finantzatzaileak egon dira, horiek polemika gutxien sortzen duten gaietan lan egin nahi izan dute eta.

Hala, lankidetzari, TBren hitzetan, diskurtso “anbigua eta refuntzionalizatua [...] nahasia eta konplizea ere” erabili izana leporatzen zaio. Esaterako, GGKEek politika neoliberalak kritikatzeko zituzten eta, aldi berean, produkzio proiektuak sustatuz, politika horiekin sortzen ziren boteretze aukerak azpimarratzen zituzten. MLlei dagokienez, NBERi generoko klausuletan ardaztutako ikuspegia aktiboki sustatzea leporatzen zaio. Hala, esaterako, UNIFEMek eta Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP), *Agenda de las mujeres para la integración regional centroamericana*¹⁸ sustatu zuten.

EMF, apurka-apurka, NBERtik urrundu da, erritmo desberdinekin, Erakunde batzuentzat, esaterako, 1970ko hamarkadaz geroztik NBER emakumeen inguruan egindako mundu mailako batzarrak lan ildo nagusi izan ziren¹⁹. Beste batzuentzat, ordea, ekitaldi horiek oso muga handiak zituzten. Argi ikusten zuten ezin zirela, aldi berean, eskubideak aldarrikatu eta DEPAk martxan jarri. Horren adibide da *El Banco Mundial en la mira de las mujeres* kanpaina. Horrek, Munduko Bankuaren proiektuek generoko inpaktu positiboa izatea bermatu nahi zuen. Baina laster, horrelako estrategiak ahalegin antzutzat jotzen hasi ziren, kasurik onenean²⁰. TBren hitzetan, estrategia horiek eta nazioarteko erakundeen “diskurtso lelotuak” alde batean utzi behar zituzten. Zentzu horretan, NFren hitzetan, instituzio horiek sustatzen zuten *generoko harreman*-en diskurtsoaren “banalizazioa” baztertu behar zuten eta, bere ordez, patriarkatuaren ideia berreskuratu behar zuten, horrek gatazka sakon ulertzea ahalbidetzen baitzuen.

Gaur egun, EMF osoa, neoliberalismoa errefusatzen duen heinean, ados dago honekin: lankidetzaren eta nazioarteko erakundeen aurrean beharrezkoa da autonomia. Hala ere, autonomia horrek izan behar duen maila eta forma ez dago argi. Hemendik aurrera, EMFk funtsezko galdera hauei erantzun beharko die: Zenbat baliabide behar da? Zer egiteko? Eta nola lortu horiek agendaren eta ekintza moduen autonomia mantenduz? Hori estatuarekiko harremanari ere dagokio. Hala,

18 Hala, dokumentu bat egin zen Erdialdeko Amerikaren eta Europako Batasunaren arteko elkartzeko akordiorako emakumeen agendaren inguruan (Saballos, 2007). Eta CCSICA Capitulo Nicaragua-ri eta Erdialdeko Amerikaren Integrazioarako Emakumeen Foroari lotutako Gizarte Zibilak deklarazio bat egin zuen hau eskatuz: “parte hartze handiagoa, galdeketa handiagoa eta Europako Batasunaren eta Erdialdeko Amerikaren arteko elkartzeko akordioaren bideragarritasuna eta egingarritasuna ikertzea, Europarekiko Negoziazioaren III. Errondan”. (<http://fmicanica.blogspot.com.es>).

19 Mexiko Hiria (1975), Kopenhague (1980), Nairobi (1985) eta Pekin (1995). Ikus hemen: <http://www.unwomen.org/es/how-we-work/intergovernmental-support/world-conferences-on-women>

20 Ikus, adibidez, AWID (2002). Dokumentu horretan honako hau adierazten da: “Munduko Bankuaren boterea eta eragina kontuan hartuz, ezin da genero berdintasunaren, emakumeen eskubideen eta garapen iraunkorraren alde lan egin Bankuaren politikari eta jarduerari kasurik egin gabe. Ekonomia iraunkorrak eta bidezkoak sortzeko estrategia feministek forma desberdinak hartzen dituzte: batzuek Munduko Bankua abolitzearen alde agertzen dira; beste batzuek, horren eragina murriztu eta bere egiturak demokratizatu behar direla diote; beste batzuen ustez, ordea, Bankuak paper garrantzitsua izan dezake berreraikuntzan eta garapenean”.

galdera horiek indarrean jarraitzen dute eta EMFz harago doaz, gizarte mugimendu guztiak ukituz.

7.2. Autonomia gizarte mugimendu mistoen eta gobernu progresisten aurrean?

EMFren eta gizarte mugimendu mistoen eta gobernu progresisten arteko harremanaren inguruan eztabaida beroagoa da eta ez dago adostasunik. Lan egiteko moduen eta edukien autonomia oinarria delarik, zer nolako lankidetzak sor daitezke?

Generoko auziei espezifiki dagozkion ekintza espazioetan EMFtik eta gizarte mugimendu mistoetatik datozen emakumeak elkartzen dira, hau da, feminismo *tradizional* edo *klasiko*-tik datozen emakumeak eta sindikatuetatik, ingurumenaren aldeko mugimenduetatik eta abarretik datozenak. Antolakuntza espazio zabalgago horietan era desberdinetan hartu dute parte eta parte hartze horiek aldatu dira. ASCan, urte askoz, emakumeen batzorde bat egon zen. Horrek generoaren inguruko ekintza espezifikoak antolatzen zituen Foro Sozialetan eta Herrien Gailurretan beretan. DR-CAFTA eta PPPren aurkako borrokan, aldiz, ez zen horrela izan. Izan ere, horretan, emakumeen Erdialdeko Amerikako Foro espezifiko bat antolatu aurretik, EMFk urteak eman zituen Herrien Autodeterminaziorako Erdialdeko Amerikako Foroetan parte hartzen.

Gaur egun, galdera honek indarrean jarraitzen du: beharrezkoa al da, TTK esan bezala, “gela bat norberarena”? Gainontzeko gizarte mugimenduekiko antolakuntzan, EMFk gela hori alde aurretik edo paraleloan behar du ala ez? Energia espazio mistoetan parte hartzen ematen badute, zein izan behar da helburua: kanpoan geratuko liratekeen gaiak sartzeari (neurri batean, *lobby* lana eginez) ala ikuspegia partekatzen duen (horrek lehentasuna izan ala komuna izan) proiektu politiko komuna sortzen laguntzea?

Horiek dira EMFk konpontzeke dituen tentsioak. Dena den, mugimenduak tentsio horiei ekin die dagoeneko. Hala, tentsio horiek gizarte mugimendu mistoei zuzendutako galderak elkarri beharko lituzkete. Hortik, gure buruari galdetu beharko genioke zergatik EMFk (edo, gutxienez, horren zati batek) *gela propio* hori behar duen. Izan ere, galdera horiek ez dira abstraktuak. Esate baterako, zer gertatu da indarkeria matxista salatu den topaketa horietan (erantzuna, maiz, oldarkorra

izan da, emakumeak berak errudun bihurtuz)? Eta zergatik ez dute inoiz adostasuna lortzen espezifikoki feministak diren gaiak?

Azkenik, estatuarekiko harremana beste eztabaida handi bat da. Gobernu progresistei dagokienez, polemika hori oso bizia izan da eta oraindik ere bada. EMFren zati baten iritziz, aldaketaren aldeko gobernuetan parte hartze zuzen eta aktiboa aukera historikoa da. Beste zati baten ustez, erakartzeko modu bat besterik ez da. Hirugarren batzuk beste iritzi batekoak dira. Horien ustez, EMFko kide batzuk parte hartzea erabakitzen badute ere, EMFk ez du instituzioetan nahastu behar. Horrekin lotuta, eskualdeko integrazio alternatiboko prozesua burutzeko moduaren inguruan ere desadostasuna egon da. Izan ere, gizarte mugimenduek eta herriek bultzatu beharko lukete hori? Ala gobernuak egin beharko lukete, herrien izenean?

Orokorrean, nolabaiteko adostasuna dago honen inguruan: merkataritza librearen eta, zentzu zabalago batean, neoliberalismoaren kontrako mobilizazioak giltzarri izan ziren gobernu progresistak izateko baldintzak sortzeari dagokionez. Baina, zer irakurketa egin behar dugu hortik aurrera? Gizarte mugimenduek instituzioen



aldeko apustua egin zutela esan nahi al du horrek? Ala gizarte mugimenduek gobernu horiek boterea lortzeko baldintzak sortu zituzten eta gero gobernu horiek gizarte mugimenduak desaktibatu (edo murriztu) zituzten?

EMFren eta gobernu horien arteko harremana izugarri anitza izan da. Tartean desadostasun larriak ere izan dira. Gaur egun, bolada kontserbadore berriaren aurrean, nolabaiteko adostasuna dago honen inguruan: gertatutakoaren berrikuspenerik kritiko eta lortutakoaren balantzea egin beharra dago. Hala ere, berrikuspenerik hori zaila da; izan ere, geratzen de progresismo instituzionala are gehiago ahultzen du. Aldi berean, ekintza kolektiboa aberasteko asmoz, kritikak estrategia horien balorazio politikoa egitea du helburu. Alabaina, prozesu horietan adiskide askok parte hartzen dute eta, beraz, kritika pertsona jakinen kontrako eraso bihurtu daiteke (edo horrela uler dezakete haiek).





8

**bigarren tentsioa:
alderdi teknikoa eta
mobilizazio politikoa**

8. Bigarren tentsioa: alderdi teknikoa eta mobilizazio politikoa

Konpontzeke dagoen bigarren tentsioa hau da: Zertan jarri behar da enfasia, energia eta baliabideak? Alderdi teknikoan, hau da, konplexuak izaten diren akordio horiek zehatz-mehatz ulertzeko ahaleginean? Ala mobilizazioan, horrek zehaztasun txikiagoa esan nahi badu ere? Argi dago bide biak ezinbestekoa direla baina, zenbat bakoitzetik?

8.1. Alderdi teknikoaren ekarpenak eta mugak

Batzuentzat ezinbestekoa da akordioen xehetasun guztiak zehatz-mehatz ezagutzea, inpaktuen azterketa zehaztasun handiz egitea eta negoziazio prozesuen toles guztiak gertutik ezagutzea. Hala, erresistentzia ideologizatzeke eta funtsik gabeko argudio erretorikoak erabiltzeko arriskua saihestuko dute. Era berean, negoziazioetan beretan eragin handiagoa izango dute.

Lan tekniko hori funtsezkoa bada ere, mugimenduaren beste zati baten ustez, arriskutsua da dimentsio hori gehiegi azpimarratzea. Honako hauek dira, besteak beste, arrisku horiek: MNk azaltzen duen bezala, mugimenduan “bi solairu” sortzeko arriskua dago, hau da, solairu teknikoa osatzen dutenak (*goian*) eta mobilizazioaren oinarri direnak (*behean*). Alderdi teknikoan presentzia handia dutenentzat oinarrian daudenak, berezko ahotsa eta iritzia duen subjektu politiko barik, *kaltetutako* herritar bilaka daitezke. Horrek ondorioak ditu mobilizazio politikoan: *goikoek* mobilizazioa definitzen saia daitezke; hau da, noiz, nola eta zer nolako gaien inguruan eragin behar den. MNk ironiaz komentatzen du, harreman horretan, alderdi teknikotik mobilizatzeke dei bat egiten dutela, “pizza bat eskatuko bailuten”.

Bigarren arriskua honako hau da: alderdi teknikoa ke-laino bat izatea. MLLak konplexuak eta korapilatsuak dira. Xehetasunak ezagutzea beharrezkoa da, hortik, atzean dagoen proiektu nagusia identifikatu ahal izateko. Arriskua, beraz, hori da, *xehetasunetan galtzea*, alegia. Izan ere, negoziatzen dutenek edo akordioak sustatzen dituztenek datuak emateko erabiltzen duten modua, berez, kontrol eta desaktibatze estrategiatzat har daiteke: hainbeste informazioa ematen da non gaia labirinto bat bilakatzen den. Bada, erraz galtzen da osotasunaren ikuspegia. MNren hitzetan “informazioa aurkezteko moduak jendea formateatzeko ahalmen handia du”.

Hirugarren arriskua etsipena da: alderdi teknikitik akordioen oinarrian dagoen proiektu politiko eta ekonomikoaren sakontasuna ikusten da, baita horiek onartzeko edo, beharrezkoa bada, bideratzeko estrategien indarra eta malgutasuna ere. Hain sakona da jokoan dagoena eta hain handiak dira horren atzean dauden botereak non, hori ikustean, erraz galtzen den gogoia. Hala, kasurik onenean, kaltea minimizatzeko ikuspegi teknizista bat erabiltzeko arriskua dago.

Eta aipa dezakegun azken arriskua hazkundearen muga da: akordioen inguruan alderdi teknikoen ezagutza aditua duenak besterik ezin badu hitz egin, zenbatak transmititu ahal izango dute akordioak zertan dautzan, zeintzuk izan daitezkeen horien ondorioak eta zer alternatiba sor daitezkeen? Azken batean, arazo materiala baino ez da, denbora eta espazio muga bat: zenbat lekutan egon gaitezke ubikuotasun ahalmena ez badugu?

8.2. Borrokako hizkera bat sortzen

Esan bezala, teknizismoaren eta mobilizazioaren artean oreka bat lortzeari dagokionez, ez da adostasunik lortu: indarrak zertan eman eta bide bien artean zer nolako harremana ezarri? Baina badago pistarik horren inguruan, hain zuzen, FTAA-ren aurrean arrakasta izan zuen horretatik ikas dezakeguna.

Lehenbizi, alderdi teknikoak izan behar duen rola ondo zehaztu behar da. Hori ekintza politikorako tresna bat da. Bere rola, hain zuzen ere, garrantzi handiena duen hori identifikatzea da: zehaztasunak ezagutzea, ustez loturarik ez duten alderdiak lotzea, negoziazio prozesuak argitzea, enuntziatu zailak deszifratzea... Horrek guztiak jokoan dagoena eta partida nola jokatzen ari den identifikatzea du helburu. Hortik, mobilizatorako ezinbestekoa den informazioa ematen da.

Nola bilatu zer den garrantzitsuena informazio labirintoan galdu gabe? EMFk, hain zuzen ere, honako proposamen hau egiten du: hori guztia bizitzari lotzea; MLLak pertsonen bizitzatik begiratzea eta informazioa euren bizitzari lotuz itzultzea. Beste hitzez, ez dugu “makro”-aren eta “mikro”-aren arteko disoziazioan erori behar. Makroa mikroan ulertu behar da, hau da, akordio handiak egunerokoan. Baina, gehienbat, garrantzitsua da ez lantzea espazio biak disoziatu. Prozesu handiak ez dira pertsonen bizitza onetik/txarretik banatu behar. Horrela, gaiak zatikatzeko arriskua ere ekiditen da. Izan ere, bizitzan, elikadura, osasuna, haurrak zaintzea, lana eta zaintza lanak ez daude banatuta. Makro-meso-mikro jarraitutasun harria ulertzeko eta akordioei buruzko diskurtso integratua eta ez zatikatua izateko, akordioen azterketa teknikoak bizitza hartu behar du ulermenaren ardatz. Zentzu horretan, MLlen aurrean hori lortu zen eta, lorpen hori aintzat hartzen dugu. Hala, TTren hitzetan, hura “sintesi eta amarradura”-zko funtsezko momentu bat izan zen.

Bi solairu egiteko arriskua saihesteko, honako hau da funtsezko beste auzi bat: maila desberdinetan sortzen diren ezagutzak eta diskurtso politikoak legitimotzat hartu behar ditugu. Beren eguneroko bizitzari lotuta hitz egin edo pentsatzen dutenek eta esfera *aditu* batetik egiten dutenek, beharbada, gauza beraz hitz egiten ari dira, baina hitz desberdinak erabiliz. Ereku teknikoan daudenek ezin dute pentsatu badaudela emakume xumeenak ulertzeko gai ez diren gaiak. Dena da ulergarria hizkera egokia erabiltzen bada. Are gehiago, eremu guztietan sortzen da aintzat hartu behar dugun ezagutza eta iritzi politikoa. Hala, borrokaren korapiloak non dauden ulertzeari dagokionez, tresna teknikoen (datuen, suposizioen, eredu...) erabilera okerrak itsu gaitzake. Baina paperak ikusten ez duena, beharbada, bizitzetan eta lurraldeetan argi eta garbi ikusiko da.

Horrek guztiak ondorioak ditu ikerketaren ikuspegian. Erantzun beharreko galderak mobilizaziotik beratik sortu behar dute, pertsonen bizitzari lotuta egon behar dute eta egunerokoari lotutako hizkera erabiliz erantzun behar zaie. Horrek, heziketan ere ondorioak ditu. Izan ere, zaila izaten da heziketa aditua eta herri hezkuntza orekatzea. FTAAren aurkako erresistentzian biak erabili zituzten; zenbait taldek gehiago azpimarratu zuten bata eta beste zenbaitek bestea. Hala, oso era egokian uztartu ziren guztiak, baliabide pedagogiko desberdinak erabiliz (antzerkia, trukeko azokak, mimika...).

Azken batean, alderdi teknikoak mobilizazioaren zerbitzura dagoen tresna izan behar du. Hala, mobilizazioak berak definitu beharko ditu diskurtsoa eta estrate-

gia. Lan teknikoaren helburuak borrokako hizkera sortzeko tresnak eskaintzea izan behar du: pertsonen bizitzatik abiatuta (ez akordioetatik) eta beste erreferente batzuk erabiliz (ez merkatukoak -horren *hizkerakoak*-, bizitzakoak baizik -gure *hizkerakoak*-), prozesu handiekin konektatu behar dugu (hor bai, itunekin eta horien enuntziatu korapilatsuekin).

Bigarren tentsioa

Alderdi tekniko eta mobilizazio politikoa: zer nolako oreka?

| ALDERDI TEKNIKOA ETA ADITUA | BORROKAKO HIZKERA |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Ezinbestekoa: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Jokoan dagoena identifikatzea ▪ Erretorika hutsa saihestea - Baina arriskuak ditu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bi solairu: goian eta behean; manifestazio bat antolatuko dugu? Pizza bateskatuko dugu? ▪ Informazio labirintoan galtzea ▪ Etsipena ▪ Ez dugu ubikuotasun ahalmena | <ul style="list-style-type: none"> - Alderdi tekniko: mobilizazioaren zerbitzurako tresna - Maila desberdinetako diskurtso eta iritzi politikoa legitimotzat hartzea <p style="text-align: center;"> Bizitza konkretetik ↓ Erreferente propioak erabiliz (ez merkatuarenak) ↓ Gai handiekin konektatzea </p> |





9

**hirugarren tentsioa:
Lehentasunezko
gaiak gai sektorialen
aurrian, ala interes
sektorialetatik
eratorritako interes
komuna?**

9. Hirugarren tentsioa: Lehenasunezko gaiak gai sektorialekin aurrean, ala interes sektorialetatik eratorritako interes komuna?

Jende askok galdetzen du nola lortu ziren, FTAAren kontrako borrokan, horren batasun eta koordinazio maila handiak. Eta bi erantzun desberdin dago: lehenasuna zuen hori identifikatzea lortu zelako edo interes komun bat sortzea lortu zelako. Ematen du bide biek proposamen bera egiten dutela, baina ez da hala. Ikus dezagun.

Batzuen ustez, kolektibo eta erakunde guztiek interes sektoriala alde batera utzi zuten (norberaren gaia kokatzeko *lobby* bezala aritzea saihestuz) eta *lehenasunezko gaia*, hau da, garrantzi handiagoa edo beste guztiak biltzen zituen gaia lehenetsi zuten. Horien ustez, horregatik lortu zen batasuna.

Beste batzuen ustez, ordea, interes sektorialetatik interes *komun* bat sortzea lortu zen. Hau da, ereduaren aurkako ikuskera komuna lortu zen, norberak lantzen zituen gaiak lotuz. Hala, *nire gaitik eta nire modura* estrategia ez zen nahikoa (bakoitza berean geratzea ez da nahikoa) baina beharrezkoa zen gaien eta estrategien hegemoniaren lehian ez sartzeko. Hori alderdi desberdinetan ikusten zen, esaterako, parte hartzen zuten erakunde askok, kanpainako material orokorrak erabiltzen zituzten beren ekintzetan.

Lehenasunezko gaia bilatzeko ideien aurrean (gaien hierarkia sortzen zuena), ematen du guztien gaiak lotzen dituen interes komuna bilatzeko ikuspegiak indar handiagoa duela. Nolanahi ere, bide biek helburu bera dute, hau da, koordinatzea eta gaien zatiketa saihestea. Hala ere, tentsio hori beti dago eta, gaur egun, antza, indartzen ari da. Hala, zatiketa horri, gutxienez, hiru zentzutan ekin behar zaio.

Alde batetik, honako hau galdetu behar diogu gure buruari: nola landu behar ditugu MLIen inguruko gai desberdinak? Batzuen ustez, MLIen negoziazioetan sartutako gaiak modu espezifikoan lantzeak (nekazaritza, zerbitzuak, nekazaritzakoak

ez diren ondasunen merkatua, jabetza intelektuala, erosketa publikoak, etab.) inpaktuak identifikatzen eta herrialdeen eta eskualdearen garapenaren inguruan pentsatzen lagundu zuen. Horrek gidalerro alternatiboak ere eskaini zituen. Baina gaikako lanak ez du esan nahi estrategia partzelatua erabili behar denik. Haatik, FTAAren aurkako kanpainan taktika zatikatua jarri zen martxan.

Hori maila politikoan gertatu zen, negoziazioetatik irten behar ziren gaiak eta barruan jarraituko zutenak definituz. Horren adibide da, nekazaritzak MMEtik irte- teko aldarrikapena. Azterketari dagokionez ere, gauza bera gertatu zen: ikerketa sektorialak egin ziren horien arteko loturari garrantzi handirik eman gabe (nahiz eta hari horiek ziren, hain zuzen ere, inposatzen zen ereduaren osotasuna ikustea ahalbidetzen zutenak). Hala, gaur egun, orokorrean, gaiak zatikatze hori errefusa- tzen da; baina hau da egin beharreko galdera: nola saihets daiteke zatikatze hori? Borrokako gaien inguruan aztertzea eta proposamen zehatzak izatea ezinbeste- koa da, baina horiek atzean dagoen proiektua ulertu eta alternatiba integral baten parte izan behar dute.

Beste alde batetik, EMFren beraren gaien zatikatzea daukagu. Izan ere, horrela modu berezian lantzen dira gai *klasikoagoak* edo *feministagoak* (adibidez, indar- keria eta sexu eta ugalketa eskubideak) eta *berez feminismokoak ez diren* gaiak (adibidez, eskubide ekonomikoak). Aipatu dugun bezala, maiz, lankidetzak eta NBEk zatiketa hori sustatu zuten, problematikoak ez ziren gaiak modu berezian landu nahian. FTAAren erresistentzian parte hartu zuen EMFren zatiarentzat, hain zuzen ere, gai anitz horien arteko loturak sortzea ezinbestekoa zen. Esaterako, emakumeen kontrako indarkeria patriarkatuaren ondorioa zela eta emakumeen pobrezia kapitalismoaren ondorioa zela pentsatu beharrean, gauza biak sistema kapitalista patriarkalaren ondoriotzat hartzen zituen.

Azkenik, honako hau da ematen den beste zatiketa bat: *feministak* diren gaiak eta gainontzeko gizarte mugimenduen gaiak bereizten dituen. Zergatik gai horiek ez dute inoiz adostasuna sortzen? Ez dira lehentasunezkatzat jotzen; alderantziz, hausletzat jotzen dira. Izan ere, horiei lehentasuna ematean beste eskaera oroko- rrago edo garrantzitsuago batzuk kaltetzen direla argudiatzen dute. Era berean, ez dira gai komuntzat hartzen, espezifikotzat baizik, ez omen dagokie sistemaren benetako eraldaketa eta mugimendua bana omen dezakete.

EMFrentzat hori arazo handia da. Hala, *gai* feministei lehentasuna emateko eta in- teres komun bihurtzeko ezintasun horrek oker politiko asko sortu ditu. Aurrerago, indarkeriaren gaia lantzen dugunean horri buruz hitz egingo dugu.

Batasun eta koordinazio maila handiak lortzeko, zatiketa saihestu behar dugu. Baina hori nola lortzeko galderak jarraitzen du; lehentasuna duena identifikatuz edo interes komuna eraikiz? Eta esateaz gain, nola egin hori, gaiari heltzeari eta antolakuntza politikoari dagokionez?

Hirugarren tentsioa

Interes sektoriala, lehentasunezkoa eta komuna

NOLA LORTU BATASUNA?

- Lehentasunezko gaia gai sektorialaren ginetik identifikatzea?
- Ala interes sektorialetik abiatuz interes komuna eraiki?

NOLA SAIHESTU GAIEN ZATIKETA?

- Akordioen edukiari dagokionez:
 - Gaien azterketa zehatza ala loturazko hariak bilatu?
 - Estrategia politiko sektorialak ala ikuspegi komuna?
- EMFri dagokionez:
 - Gai *feministak* gai *ekonomikoen* aurrean ala jarrera feminista kapitalismo patriarkalaren aurrean?
- EMF – Gizarte mugimendu mistoak:
 - Zergatik auzi *feministak* ez dira inoiz ez lehentasunezkoak ez komunak?



10

**gaur egun
pentsatzeko gakoa:
neoliberalismoaren
berrantolaketa eta
indarkeria patriarkala**

10. Gaur egun pentsatzeko gakoa: neoliberalismoaren berrantolaketa eta indarkeria patriarkala

EMFren barruan eta kanpoan adostasuna dago honen inguruan: proiektu hegemonikoa berrantolatzen ari da. Baina, zer zentzutan? Globalizazio neoliberalaren proiektu unibertsalistaren berrantolaketa al da? Hala balitz, borroka handiena elite globalen kontrakoa izango litzateke, horiek estrategia desberdinak erabiltzen badituzte ere. Ala kapitalismoaren berrantolaketaz ari al gara, joera unibertsalista batetik nazionalistagoa den kapitalismo batera? Hala balitz, elite nazionalen kontrako borroka gero eta garrantzi handiagoa izango luke. Zalantza horien aurrean, EMFk aurretik ikasitakoa aldarrikatzen du, hau da, emakumeen bizi esperientzietatik begiratu behar dugu, berrantolaketaren dimentsio patriarkala ikusteko eta jokoan dagoen hori identifikatzeko.

10.1. Patriarkatuaren berrantolaketa

Proiektu hegemonikoaren berrantolaketa irakurtzeko moduaren inguruan, ez dago adostasunik EMFren baitan. Badago adostasuna, ordea, bi hauen inguruan: lehenik, berrantolaketa hori ez dela ongi etorria. Zentzu horretan, Trumpek protekzionismo handiagoa deitu du, NAFTA berrikusiko duela adierazi du eta TPPa geldituko duela iragarri du. Baina horiek ez dira berri onak, ezta alternatiben artean tokiko ekonomiak sendotu nahi baditugu ere. Horregatik, bereziki garrantzitsua da berrantolatutako proiektu hegemoniko horren eta proiektu alternatibo emanzipatzaile baten diskurtsoen arteko desberdintasunak azpimarratzea.

Itunen atzean dagoen eredu heteropatriarkala dela ikasi dutelarik, honako hau da EMFren baitan dagoen bigarren adostasuna: berrantolaketa horretan, sistema-
ren dimentsio kapitalistaz gain, dimentsio patriarkala ere jokoan dago.

MLk esaten duen bezala, “koloreetako agenda neoliberala” atzean uzten duen pakete kontserbadore berri baten hedapena bizitzen ari al gara? Une batean, neoliberalismoa eta generoko berdintasuna hobetzen zuten eskubide indibidualak bateragarriak izan zitekeela ematen zuen. EMFren zati bat iritzi horretakoa zen. Hala, emakume horiek honako hauek sartzen saiatu ziren: sexu eta ugalketa eskubideak, sexu aniztasunaren aitorpen partziala, sexu araberako lan diskriminazio modu batzuen aurreko babes, zenbait kontziliazio eskubide... Bazirudien jarrera irekia zegoela agenda feministaren aurrean baina orain ikusten da emakumeen gorputza, sexualitatea eta, orokorrean, bizitza kontrolatzeko mekanismo zuzen eta esplizituak indartzen direla eta, eskubide horiei guztiei dagokienez, bistako atzerakada ematen ari da.

EMFk berak aldarrikapen horietako asko feminismo liberalari lotuta zeudela kritikatu izan du askotan. Izan ere, ez ziren emakume guztien aldarrikapenak kontuan hartzen. Hala, horiek ez dira neoliberalismoarekin behar bezain kritikoan izan eta, are gehiago, bere alde jokatu dute. Agenda feministak zuen babes soziala, askotan, politika neoliberalak legitimatzeko baliatu izan dute. Neurri desarautzaileak eta pribatizatazaileak, bada, ez dira noizbehinkakoak izan. Horietako askok, aldi berean, lehen aipatutako eskubideak hobetzen zituzten. Beste hitzez, EMFren zati batek iruzur liluragarrien tranpan erori zen. Are gehiago, eskaera feminista horiek betetzeko promesak liluragarriago egin zituen iruzur horiek. Horrez gain, feminismo liberalaren ezaugarrietako bat eskubideen ikuspegi indibidualista da eta horrek neoliberalismoaren proiektu indibidualizatazailea sendotu zuen²¹.

Baina, zer gertatzen ari da gaur egun? TBk komentatzen duen bezala, EMFk “neoliberalismoarekin ez goazela inora” ikasi du. Aldi berean, erabat patriarkala den diskurtso kontserbadore batek ere indarra hartu du eta, diskurtso hori baliatuz, proiektu kapitalista inposatzen ari dira. Adibidez, Kolonbiako bake akordioak ukatzeak generoko irakurketa argia du. Akordioak errefusatzeko argudio batzuek babes handia izan zuen eta horietako batek bake akordioak generoko ideologiarekin

21 Adibidez, Iparralde globaleko herrialdeetan gizon eta emakumeen aukera berdintasunerako klausulak enplegua prekarizatzen zuten lan erreformen aldeko babes lortzeko baliatu dituzte. Esan dezakegu Abya Yalan horrelakorik gertatu dela? Fraseren arabera (2013 eta 2015), bigarren olatuko feminismoak, joera liberala duen heinean, “kapitalismoaren zerbitzari” gisa aritu da. Baina Latinoamerikan zalantzan dago Iparralde globaletik kanpo gauza bera gertatu den (Schild, 2016).

lotzen zituen. Beste adibiderik ere badago, esaterako, Dilma Rousseffren kontrako erasoek erakusten duten matxismo handia. Azken batean, argi eta garbi patriarkalak dituen argudioak erabiltzen ari dira gobernu progresistak iraintzeko. Aldi berean, progresismoaren baitan ez da sortu eraso horiei aurre egingo dien indar politiko feministarik.

Beraz, feminismoaren legitimitatea aldatu da: lehen feminismo liberala proiektu hegemonikoaren alde erabiltzen zuten eta, orain, ordea, feminismoa (gutxiespenez, generoko ideologia esaten zaio) proiektu kapitalista berrantolatua- ren aurkako erresistentzia deslegitimatzeke erabiltzen dute. Horrela izatekotan, proiektu hegemonikoaren dimentsio patriarkala ulertzea eta horren kontrako jar- rerra argia izatea agenda emantzipatzaile baten bereizgarri izan daiteke. Nolanahi ere, gai feministak, ezinbestez, topagune bilakatu behar dira.

10.2. Indarkeria patriarkal eta/edo(?) korporatiboa

Zer gertatuko da gaur gatazkaren muinean dagoen hori ulertzeko emakumeen esperientzietatik eta, bereziki, emakume baserritar, indigena, nekazari eta afrikar jatorriko emakumeen bizitzatik begiratzen badugu? Aurreko hamarkadetan, hor- tik, jokoan zegoen hori identifikatzea lortu zen, hau da, bizitzaren merkantilizazioa bera. Gaur, haien bizitzatik begiratzean, indarkeriak garrantzi handia hartzen du. Beharbada, bertan gertatzen ari dena ulertzen badugu, zentzu zabalago batean ulertuko dugu nola berrantolatzen ari den sistema. Eta beharbada, horrela, erraz bereiziko ditugu agenda emantzipatzailea eta itxuraz berria den proiektu hege- monikoaren agenda.

Abya Yalan, kapitalaren indarkeriek gora egin dute beren forma desberdinetan eta era kezagarri eta orokorrean. Estatuak eta kapital pribatuak (legeetan edo legeetatik kanpo), bada, gora egiten utzi diete: militarizazioa, segurtasun pribatua handitzea, krimen antolatua, narkoa, edozein protesta zapaltzea... Emaku- meen bizitzetatik begiratuta indarkeria horiek guztiek garrantzi handiagoa dute eta indarkeria patriarkalarekin eta feminizidioen ubikuotasunarekin lotzen dira. Zein da indarkeria mota desberdin horien arteko lotura? Zer nolako lotura dute emakumeen kontra gizon jakinek erabiltzen duten indarkeriak eta desjabetzearen bidezko pilaketari lotutako indarkeriak? Harreman hori argitzeak pistak ematen

al dizkigu indarkeriaren rola eta, hain zuzen ere, horrek proiektu hegemonikoaren berrantolaketan duen rola inguruan?

Galdera horiek, (neo)estraktibismoko testuinguruetan, emakumeen kontrako indarkeria kasuetan gauzatzen dira, hori baita gaur egungo pilaketa estrategikoko modua nagusia. Indarkeria estraktiboa eta indarkeria heteropatriarkala kapitala sartzearen eta gizentasunaren indarkeriaren alde desberdinak al dira? EMFk urteak eman ditu hau salatzen: estraktibismoak indarkeria matxistak gora egitea dakar berekin²². Hala, lurraldea babesten duten emakumeen eta, hain zuzen ere, erresistentziaren buru diren emakumeen kontrako jazarpena eta erasoak ere ugaritzen ditu.

Emakumeak kapital estraktibistaren helburu nagusi bilakatzen ari dira? Zer dela eta? Elkarrizketatutako emakumeek hainbat kausa identifikatzen dituzte. Emakumei erasotzen zaie horiek lurrarekiko konpromiso handiagoa dutelako; izan ere, lehen aipatu bezala, emakumeentzat lurra biziraupenerako muga bat da. Emakumei erasotuz komunitate osoari kalte handiagoa eta sakonagoa egin nahi diote, horiek baitira bizitzaren ugalketa sarearen erdigunean daudenak. Zentzu zabalago batean, honako galdera hau sortzen da. Ba al dago neuririk emakumeen kontrako eraso zuzenaren atzean?

Emakume defendatzaileak jazarpenaren eta erasoaren helburu nagusia dira. Horren inguruan nolabaiteko adostasuna dago. Horien kasuan bi indarkeria gainjartzen dira, hau da, emakumeak izateagatik eta lurraldea defendatzeagatik. Zenbait kide feminista lurralde feminizidiaz²³ edo feminizidio korporatiboaz hitz egiten ari dira. Era berean, indarkeria horrek mezu bat igortzen du. Horretan ere adostasuna dago. Hauek dira igortzen dituen mezu batzuk: “mendera ezazue zuen gogoia” (MN), “onartu behar duzue” (TT), “jendea itzul dadila bere lekura, hau da, beldurrera” (TB). Indarkeria espresiboa da instrumentala baino. Ez du bilatzen onura zuzena; aitzitik, honako mezu hau igortzen du: nork agintzen duen eta zer duen bere menpe. Dagoeneko, ez da (nahikoa) bizitza merkantilizatzea, bizitza osoa menperatzea baizik. Beraz, indarkeria hori erabiltzen duenak bizitza menperatzen du.

22 Marcellino et al. (2014) dokumentuan emakumeen lanaren gorputzaren eta bizitzaren merkantilizazio bortitza salatzen dute. Hori estraktibismoaren ondorioa da. Colectivo Miradas críticas del Territorio desde el Feminismo (2014) kolektiboak “erauzitako lurraldearen patriarkalizazioa” salatzen du eta estraktibismoak lurraldea indarkeriaren bitartez zeharkatzen duela azaltzen du.

23 Hori da, hain zuzen ere, komunikatu honetan salatzen dena: *Comunicado de Mujeres en riesgo político por la defensa del Territorio Cuerdo-Tierra*, Iximulew, Guatemala, 2017ko urtarrilaren 27a. <http://www.nimajpu.org/es/comunicados/83-comunicado-de-mujeres>.

Proiektu hegemonikoaren berrantolaketa emakumeen bizitzetatik ikusita

BERRANTOLAKETA PATRIARKALA

Koloreetako agenda neoliberalatik kapitalismo erreakzionariora

↓
Gai feministak emantzipazio proiektuaren bereizgarri gisa

Gaur egun
pentsatzeko
gakoak

INDARKERIA EZTABAIDAREN MUINEAN

Indarkeria patriarkalaren eta korporatiboaren arteko loturak

↓
Indarkeria espresiboa --> mezua: bitzita menperatzea

↓
Izaera espresiboa indarkeria patriarkalaren bereizgarria

↓
Ardura historikoa: indarkeria patriarkalari ekitea proiektu hegemonikoa agerian uzteko

Hain zuzen ere, indarkeriaren erabilera instrumentala indarkeria patriarkalaren adierazgarria da eta emakumeen gorputza adierazpenerako lurralde nagusia da. Gorputz horretan idazten da gizarte osoari igorri nahi zaion mezua eta hortik hedatzen da eta beste gorputzetan ezartzen da.

Horiek horrela, emakumeen gorputza proiektu hegemonikoak erabiltzen duen kontrol espazio nagusia da. Aldi berean, gizonak kontrolatzen duten azken bazterra da. Botere korporatiboaren menpe dauden gizon horiek ere emakumeen gorputzak menpera ditzakete. Beharbada, prozesu bi horiek (kapital estraktiboaren indarkeria feminizida eta gizon jakinen indarkeria feminizida) gizontasuna adierazteko modu desberdinak dira. Zentzu horretan, gizontasuna besteen bitzita kontrolatuz eta menperatzeko ahalmen hori publikoki erakutsiz lortzen den estatusa litzateke.

10.3. Indarkeria eztabaidaren muinean

Zentzu guztietan, emakumeen bizi esperientzietatik ikusita, indarkeria sistemaren berrantolaketa ulertzeko elementu estrategikoa da. Hortik begiratuz, agian, erraz ikusten ez diren prozesuak azal ditzakegu. Ba al dago indarkeria, lehen ekonomia egon zen bezala, eztabaidaren muinean?

Neoliberalismoa (eta/edo kapitalismoa) bide bikoitz baten bitartez inposatzen da, hau da, sedukzioa erabiliz eta indarkeria erabiliz. Beharbada, azken hamarkadetan, bizitza merkantilizatzen duen sedukzio estrategia nagusi izan da. Horren ondorioz, pertsonok gure bizi kalitatea kontsumoarekin lotu izan dugu zuzenean. Gau egun, ordea, garrantzi hori, pixkanaka, indarkeriaren erabilerak hartzen du. Izan ere, behin neoliberalismoaren promes faltsuen xarma desegin da, neoliberalismoak ez du seduzitzen (edo ez da seduzitzen saiatzen); orain, inposatu egiten da.

Zenbait emakumerentzat, gaur egun, feminismoak ardura historikoa du, hau da, indarkeriak eta indarkeria desberdinak (korporatiboa barne) lotzen dituen substratu patriarkalak jokatzeko duten rol estrukturala ulertzea. Horretarako, Mexiko estrategikoa da. Izan ere, herrialde hori, HSren hitzetan, "laborategi" bat izan zen bizitza merkantilizatu nahi zuten MLEntzat. Eta gaur egun, ba al da herrialde hori bizitza osoa menperatzeko laborategi? Mexikon piztutako indarkeria kiribila herrialde horretako bereizgarria al da ala beste leku batzuetan ezkutatuta dagoen horren isla al da? HSren ustez, beste leku batzuetan harrotuko dena harrotu da Mexikon. Zer nolako ondorioak ditu horrek erresistentzian eta alternatibetan?

Agian, indarkeria patriarkalaren aurkako erresistentzian emantzipaziorako gako bat egongo da. Izan ere, erresistentzia horretan indar politiko eta mobilizatzaile handia dago. Latinoamerikan, ezta bat gutxiago ere mugimenduek indar handia dute. Horietan emakume gazte askok irmotasunez hartzen dute parte. Hala, mobilizazio horiek antolakuntza berriak sortzen ari dira; forma klasikoak (lanuzteak, adibidez), bada, berrikusten dira eta gai berri-ekin lotzen dira (lanuzteak ez daude lan kontuei bakarrik lotuta).

Hala ere, eliteek eta instituzioek (bereziki, NBEk) gaia bereganatzeko eta, hortik, gaiari indarra kentzeko arrisku handia dago. Gaia tematizatzeko arriskua handia dago, hain zuzen ere, horrek egitura zalantzan jartzeko duen gaitasuna deuseztatuz. Era berean, konponbide kriminalizatzaileen aldeko apustu baten arriskua dago, hau da, zigor, polizia eta epai sistemak indartzea. Horiek izaera arrazista eta klasista dute. Horrez gain, diskurtso tematizatu eta zigortzaile hori proiektu hegemonikoaren konplizeak (edo protagonista zuzenak) diren instituzioak legitimatzeko balia dezakete.

Azken batean, indarkeria eztabaidaren muinean dago eta mezu bat igortzen du: helburua bizitza menperatzea da. Hori indarkeria mota guztien zeharkako ezaugarri patriarkala da. Gizarte mugimenduek honako ardura historiko hau dute: indar-

keria patriarkalarekin jokoan dagoenaren konplexutasuna eta sakontasuna ulertzea. Horrek esan nahi du, gizarte mugimenduek indarkeria matxistak toleratzeari eta legitimatzeari (legitimatze hori, ahula eta ezkutukoa bada ere) uzteko ardura dutela. Horretarako, hau ulertu behar dute: horixe dela, hain justu ere, indarkeria korporatiboa ahalbidetzen duten baldintzen hazitegia. Eta EMFk, bere aldetik, eraso mota desberdinen arteko lotura nahasiak argitzen laguntzeko ardura historikoa du. Horretarako, ikuspegi instituzionalaren esku erortzea saihestu beharra dago. Izan ere, ikuspegi instituzional horrek indarkeria matxistaren aurkako erresistentziaren indarra deuseztatu eta, are okerrago, hori ke-laino bilaka dezake.





11

**gaur egun jarduteko
gakoa: tokiko eremua
bestelako eskualde
integrazio batean
alternatiba gisa**

11. Gaur egun jarduteko gakoa: tokiko eremua bestelako eskualde integrazio batean alternatiba gisa

Azken hamarkadetako esperientzia ikusita, gaur bistakoa da alternatibak hasieratik landu behar direla. Mobilizazio politikoa bultzatu nahi badugu eta ez badugu etsipenean erori nahi, akordioen aurkako erresistentziarekin batera kontraproposamen bat egin behar dugu. Alternatiba emantzipatzaileen inguruko eztabaida ikerketetan eta heziketan txertatu behar dugu. Ikerketan, MLI baten inpaktuak ezagutzea eta horiei buruz informatzea ez da nahikoa. Aitzitik, alternatibak martxan jartzearen ondorioak ere aurreikusi behar ditugu. Eta heziketak hori gauzatzeko ahalmena sortu behar du. Baina, zein da alternatiba hori?

EMFn *impasse* momentu batean gaudela uste dugu. Ez dugu proiektu politiko-ekonomiko argirik eta edukitzailerik eta, hortaz, ez daukagu proposamen konkretuak nondik pentsatu. EMFren ustez, neoliberalismoa ez da aukera bat, ezta sozialismoa ere, gutxienez, beste momentu historiko batzuetan ulertu izan den bezala. Batzuentzat, *progresismoa* ez da alternatiba sendoa eta bateratzailea izan. Beste batzuentzat, XXI. mendeko sozialismoa, bizitza oneko sozialismoa edo sozialismo komunitarioa erreferenteak dira eta horien aldeko apustua egin behar dugu. Hala ere, horien gainean eragiten saiatu behar dugu, lehen aipatu dugun bezala, azkeneko hamarkadetan gertatutakoaren kritika berrikusiz baino ez bada ere.

Errazagoa ematen du *etsai komun* baten aurrean batasuna lortzeak, alternatibak zehazteko batasuna lortzeak baino. Feminista batzuek hau ohartarazten digute: GRren esanetan, alternatibak pentsatzean, hain zuzen ere, agertzen dira “amarruak”. Bada, logika bertikalistak, autoritarioak eta tematizatzaileak agertzen dira, prozesuak hegemonizatzeke eta norberaren gaiari lehentasuna emateko helburuz. FTAAren kontrako borrokak arrakasta izan zuen, gehienbat, borroka anitza eta nahiko horizontala izan zelako. Haatik, ez zuen alternatiba komun argirik izan.

Gaur ez daukagu eredu alternatiborik; aitzitik, esperientzia anitz dugu; ereduak, pluralean. Hori, orokorrean, onartua dago. Ikuspegi optimista batetik, eredu horien artean antolakuntza sortuko balitz, MLIen oinarrian dagoen proiektu hegemonikoa ezegonkortzeko indar nahikoa izango lukete. HSk adierazten duen bezala, ez dago zulorik, arrailak daude. Agian, gakoa horiek lotzea da, elkarrekin sistema behera bota dezaten. Batzuentzat, bateratze horren markoa XXI. mendeko sozialismoa da eta, hortaz, estatuak funtsezko rola izan behar du horretan. Beste batzuentzat, ordea, markoa tokiko eremua da eta sare komunitarioen bitartez gauzatuko dira arrailak.

Edozelan ere, eredu plural horiek tokiko ekonomietan oinarritzen dira eta horien arteko antolaketa eskualdeko integrazio alternatiboaren bitartez izan daiteke. Hori izango litzateke, gaur egun, estatua eta/edo komunitatea barnean hartuko lukeen apustuaren norabide bikoitza.

11.1. Bertako ekonomiak sendotzea

Aipatu dugun bezala, ekonomia horiek zer mailatan (nazionala? lurralde maila? komunitarioa?) kokatzen diren erantzuteari dagokionez, ez dago adostasunik. Aitzitik, ekimen ugari dago globalizazio neoliberalaren proiektuen desberdina den eskala batean. Hain zuzen ere, ekimen horietan oinarritzen da, neurri handi batean, aldaketa egongo delako itxaropena. Lehen aipatutako berrantolaketa inoiz ez bezalako krisi ekologiko baten testuinguruan ematen ari da eta aurreko hamarkadetako itzulingururik gabeko joera unibertsalizatzaileari mugak jartzen dizkio. Hala, nahiz eta ongi etorria ez izan, berrantolaketa horrek ekimen horiek ugaritzea sustatzen dituzten baldintzak sortzen ditu, bizirik irauteko modu gisa besterik ez bada ere.

Bestalde, tokiko ekonomia horien indar nagusia hau da: berehala, beste bizimodu desberdinak sortzen dituztela. TBren hitzetan, “larrialdi sentimendu sendo” honen aurrean, tokiko ekonomiek berehalako erantzuna ematen diete oinarritzko beharrei. HSk azaltzen duen bezala, “orain eta hemen, bizimodu gozoagoak bilatzen dituzte”.

Gainera, etorkizuneko alternatiba batean desiragarriak diren ezaugarrien arabe-ra egiten dute hori. Lehenik, ekonomia horiek beste behar batzuei erantzuten diete. Nagusi den ekoizpen egiturak desberdintasun sozioekonomikoak islatzen ditu. Horretan, bizi kalitaterako funtsezkoak diren ondasunak ez dira lehentasuna.

Ekonomia horiek, alderantziz, euren protagonisten beharrei erantzuten diete eta protagonista horiek sisteman menpeko egoerak dituztenak dira. Gainera, ekimen horietan lana erdigunean dago. Teknologiari gero eta garrantzi handiagoa ematen dion apustu desarrollistak ez bezala, alternatiba horiek giza lan asko erabiltzen dute. Aldi berean, lana bera zer den ere hausnartzen dute, hori merkatutik bananduz²⁴.

Horri nolabait lotuta, alternatiba horiek materialen eta energiaren erabilera neurritsuagoa egiten dute. Ekonomia horiek lurraldean errotzen dira. Horientzat lurraldea honako hau da: “bizitzaren ugalketa egiten dugun lekua, nire hildakoak eta nire familia dauden lekua, elikatzen garen lekua, jaiotzen garen eta hiltzen garen lekua”, TTren hitzetan. Hortik, autonomia maila handiagoak lortzen laguntzen dute. Hau da, lurraldearen burujabetza lortzen laguntzen dute, MLIen atzean dagoen ekonomia global hiperkonplexutik urrunduz, gutxi bada ere. Izan ere, ekonomia horretan, herriek ez dute erabakitzeke ahalmenik. Azkenik, alternatiba horietako asko (batez ere, partaide gehienak emakumeak diren horiek), zaintzaren logika edo etika baten inguruan antolatzen dira. Lan ez ordainduen bereizgarri den logika edo etika horrek alde batera uzten du normalean jardueraren eragile izaten den onura asmoa. Ekonomia horien ardatza, bada, bizitza zaintzea da, ongizate kolektiboa.

Hala bestelako modu horiek marjinetatik eraikitzen ari dira, hau da, desjabetzeko eredu horretan menpeko bihurtu diren sektoreetatik. Horietako askotan emakumeak dira protagonistak. Horien adibide ugari aurkitzen dugu elikadura burujabetzan, zaintzan eta ekonomia sozial eta solidarioan.

Zaintza lanak eztabaidagai nagusia dira EMFren baitan. Alde batetik, martxan dauden eta sor daitezkeen zaintza kolektiboko esperientzien indar handia aintzat hartzen dute. Adibidez, Brasileko hainbat emakumek martxan jarritako esperientzia dugu. Ekimen horren bitartez, emakume horiek kalean dauden adingabeak kolektiboan zaintzen dituzte. Hala, urbanizatzearen eraginez gertuko zaintza zirkuituak hondatzeko joerari aurre egin nahi diote. Antzeko modu batean, Erdialdeko Amerikako *maquila* lantegietako langileek enplegua eta haurren zaintza kontziliazko dituzten arazoan, batzuek ez dituzte zerbitzu publikoak eskatu nahi. Izan ere, ez dira fidatzen kapital pribatuaren adiskide diren gobernuek eta, hortaz, zalantzan dute gobernuek zerbitzu horiek martxan jartzeko borondatea duten

24 NSren arabera, EMFk “lanik ez”-aren aldeko apustua egiten du. Izan ere, kapitalismoaren lan alienatuarekin hautsi behar dugu eta lan hori ezin da inoiz borroka feministaren helburua izan. Aitzitik, lanaren ideia eta zentzua emakumeen praktiketatik abiatuz zalantzan jarri behar dugu.

eta, batez ere, zerbitzu horiek iraungo duten. Horren aurrean, emakumeen arteko laguntza sare komunitarioak sortzeko apustua egiten dute. Modu batera edo bestera, zaintza esperientzia kolektiboen alde jotzen da. Horiek autoantolatzeko gaitasuna behar dute eta merkatuko logikarekin hausten dute.

Zaintza lanak balioetsiz, bizitza praktika ekonomikoen epizentroan jartzen dugu. Hala ere, zaintzan arriskuak ere badaude, batez ere, aldarrikapen feministen instituzionalizazioari dagokionez. Zentzu horretan, hauek dira arrisku nagusiak: NBE-ren diskurtsoak aldarrikapen horiek bereganatzea eta politika publikoa solaskide bakarra izatea. Hala, horrek beldurra ematen du; izan ere bizitza onaren elkar zaintzea oinarri hartzen duten praktika ekonomiko burujabeak lagundu beharrean, merkatuaren menpe ez dauden ekonomia moduak desagerrarazi ditzake, kapitalistak ez diren ugalketa eta ekoizpen moduak hondatuz.

MNk proposatzen duenez, ekonomia modu horien ugalketa “landa baso” bat mar txan jartzea bezala irudikatu behar dugu²⁵. Bizitza galdu duten lurrak leheneratu nahi dituzten proiektuetan lehenengo erraz eta azkar hazten diren landareak ereriten dira. Horrela, etorkizunean landatuko dugun horretarako egokia den giroa sortuko dugu. Beraz, oraindik ahulegiak diren ekimenak hazi ahal izateko baldintzak jarri behar ditugu. Hala, epe luzeko alternatiba emantzipatzaile sendoak sortzeko substratu gisa, zeintzuk dira orain susta ditzakegun ekonomia moduak, perfektuak ez direnak baina egin daitezkeenak? Nola sortuko dugu alternatiba horien modu hasiberriak zainduko dituen giroa?

Tokiko ekonomia horien aldeko apustuak hainbat erronkari egin behar dio aurre. Marjinetatik eta menpeko sektoreetatik sortutako ekonomia horiek erdigunean jarri behar ditugu. MLk azaltzen duen bezala, praktika horiek “marjinalitatearen eta pobreziaaren alderdikoak” direlako ustea garaitu behar dugu. Aitzitik, praktika horiek alternatibaren muinean daude. Hori ulertzeko, eremu sozial eta ekonomikoaren banaketa zalantzan jarri behar dugu. Azken batean, MLk adierazi bezala, ekonomia alternatibo horrek ekonomia sozial eta solidarioa izan beharko du²⁶.

Bestalde, praktika horiek egonkortzea eta haien artean koordinatzea funtsezko beste zailtasun bat da. Batzuen ustez, estatuak funtsezko rola du. Horien ustez, praktika horiek garapen plan nazional batean txertatu eta politika ekonomikoa egiteko ahalmen instituzionala berreskuratzearekin lortu behar ditugu. Labur-

25 Hor ekologismo sozialean erabiltzen den biomimesiko printzipio bat azaltzen da. Hori “maila desberdinetan (bereziki, ekosistema mailan), bizitzaren funtzionamenduaren printzipioak ulertzea honako helburu honekin: *giza sistemak natura sistemekin bat datorren modu batera berregitea*” (Riechmann, 2003: 28).

26 Ikus León (2016). Era berean, Quirogak (2009) ekonomia sozial eta solidarioaren eta ekonomia feministak balioesten dituen zaintza praktiken arteko loturak azaltzen ditu.

bilduz, praktika horiek “ekoizpen birmoldaketa integral” bat osatzea nahi dute. NFren ustez, birmoldaketa horren bitartez, aldi berean, beste modu batean eta beste gauza batzuk produzitu beharko dituzte. Azkenik, hau da identifikatzen dugun azken zalantza: nola eraman daitezke alternatiba horiek hiri eremura. Izan ere, orokorrean ados daude ekonomia horiek landa eremuan sendotzea errazagoa dela.

Hala, testuinguru globalak aukerak sortzen baditu ere, azaldu dugun bezala, arriskuak ere sortzen ditu. Izan ere, elite nazionalekiko gatazka sakonduko dela aurreikusten da. Gatazka horri aurre egiteko, funtsezkoa da ekimen horiek zentzu politiko batean indar espresiboa izatea. Hau da, ekimen horiek eragiteko borondatea eta ahalmena duten subjektu politikoak sortzen lagundu behar dute. Hala, egin dezagun berriro ere hasierako galdera: Zer dakar horrek; gobernu *progresisten* politika instituzionalaren aldeko apustua ala gobernu horiekin haustea? Eztabaidak jarraitzen du.

11.2. Eskualde integrazio alternatiboa

Hala, lurraldean errotutako ekonomia autonomoago horiek eskualde integrazio alternatiboko prozesu baten bidez elkartzen badira, arrisku horietako batzuei errazago egin dakieke aurre. Horien eskala eta antolakuntza handitzea da helburua, produkzio kolektiboko moduak eta indar politikoa sortzea uztartuz.

FTAaren aurkako erresistentzian ere eskualde integrazio alternatiboa ere proposatu zen. Horretan, *aldaketaren gobernuek* paper konplexu eta ez lineala izan dute²⁷. Proposamen hori, berez, eta hori lortzeko eman ziren urratsak, orokorrean, positiboak izan ziren EMFrentzat Salbuespena Erdialdeko Amerikako EMF da. Batzuek bereziki baloratzen dute Hego Amerikako Nazioen Batasuna (Unasur), batez ere, zentzu politiko batean. Beste batzuek, aldiz, Gure Amerikako Herrientzako Aliantza Bolivartarra (ALBA) baloratzen dute gehien. Oraindik ere, badaude integrazio horretarako baldintzarik ez dagoela uste dutenak; bai botere korporatibo transnazionalak horiek boikotatu dituelako bai gobernu batzuek horiek bereganatu nahi izan dituztelako. Hala ere, orokorrean adostasuna dago honen inguruan: hori lortzeko lan egin behar dugula eta integrazio hori ez dela merkatuetatik (merkatari-

²⁷ Boliviak alde biko inbertsio itun guztiak salatu zituen. Hala ere, duela gutxi, zenbait petrolio enpresari parke nazionaletan sartzeko baimena eman die. Ekuadorren, kanpoko zorraren auditoria egin zen eta NDF eta Munduko Bankua herrialdetik irten ziren. Gero, ordea, itzuli dira eta Ekuadorrek akordioak sinatu ditu txinarekin, EBrekin, eta abarrekin. 2007An Hegoaldeko Bankua sortu zen, eskualdeko alternatiba gisa, baina oraindik ez du hasi bere jarduerara. Gobernu progresista horien “ziklo amaierako” balantze baterako, ikus González (2016).

tzatik, finantzatik...) egin behar, bizitzatik baizik. Integrazio hori herriek egin behar dute, osagarritasun ekonomikoa eta subjektu politikoak sortzea bilatuz.

Leónek integrazio alternatibo baterako gako feminista hauek aipatzen ditu (2015: 46-50):

- “Merkatuak gobernatutako integraziorik ez”. Integrazioaren ideia hori globalizazio neoliberallean hartu duen formatik bereizi behar dugu. Izan ere, globalizazioak integrazioa eta merkatua parekatzen ditu.
- “Merkataritza bitarteko bat da, ez helburua”. Beraz, truke osagarria eta solidarioa sustatu behar dugu “giza beharrei erantzuna emateko, ongizatea sortzeko eta ekoizpenari laguntzeko”.
- “Klausulez eta gizarte eskubideez gain, ekonomiaren ikuspegi zabalagoa beharrezkoa da”. Integrazio hori merkataritzazkoak ez diren ekonomiak ezagutzera eman beharko ditu eta horien oinarrian dagoen lana aintzat hartzeko balio beharko du. Horretako, ulertu behar du horiek ez direla pobrezari eusteko modu hutsak.
- “Dirua eta beste baliabide batzuk. Aniztasuna ekonomikoa ere bada”. Integrazio alternatibo bat lortzeko baliabide desberdinak erabili behar ditugu. Hala, dirua ez da balio duen bakarra. Eta zaintzak eta ongizateak baliabide horiek mobilizatzaren lehentasuna izan behar dute.
- Beste alde batetik, integrazioak berdintasuna sor dezan eta “gure ekonomien oinarrian dagoen matrize koloniala”-rekin hausteko helburuz, *Mujeres construyendo alternativas para otra integración*²⁸ panfletoak (Zenbait egile, 2006) oinarrizko eduki hauek proposatzen ditu:
- “Lana ekonomiaren oinarri gisa”. Hori ulertutakoan eztabaida honi ekin diezaiogu: “zer eta nola produzitu, pertsonen eta kolektiboen ugalketa eta biziraupena nola antolatu”. Neoliberalismoak ekoizpena kanporantz orientatu zuen barneko desberdintasunean oinarrituz. Horren aurrean, “bizitzaren ugalketak eskualdeko ekonomiaren eta gizartearen helburu zentrala izan behar du; beraz, horretan jarri beharko ditugu baliabideak, instituzioak eta ardura partekatuak”.
- “Elikadura Burujabetza: emakumeen erresistentzia eta alternatiba historikoa”. Apustu estrategikotzat jotzen dugu, “emakumeon ezagutza babesten duelako eta bizitza pribatizatzeko edozein mekanismo errefusatzeko duelako [...] kontsumo

28 Panfletoa honako hauek egin zuten 2006ko abenduko Herrien Integrazioaren aldeko Gailur Sozilerako: Emakumeen Mundu Martxa, REMTE, La Via Campesinako Emakumeak – CLOC, Diálogo Sur-Sur LGBT, ALAI Mujeres eta Área de Géneros Jubileo Sur Américas. Fariak eta Morenok (2007) ideia horiek sakontzen dituzte.

eredutik eta eredu energetikotik abiatuta, ekoizpen eta ugalketa eredu zalantzan jartzen du, eta landa-hiri harremana [agerian uzten du]”.

- “Burujabetza, autodeterminazioa eta gorputzaren gaineko autonomia”. Burujabetza hau emantzipazio proiektu baten osagarria da eta estatuak hori bermatu behar du.
- “Sektore publikoa handitzea eta sendotzea: estatutik eta gizartetik”. “Estatuaren zentzu publikoa berreskuratzea” du helburu; izan ere, estatuak herriaren zerbitzura dagoen eskubideen bermatzailea izan behar du. Horrek eragin zuzena du kanpoko inbertsioaren, energiaren, zorraren eta enpresaren esparruetan. Eskualde integrazio alternatibo hori aliantzak maila desberdinetan sortzeko marko baten barruan ulertzen da, tokiko mailatik abiatuta. Lurralde mailatik, aliantza nazionalen aldeko apustua egiten dute. Hala, aldi berean, aliantza nazional horiek nazioartean lotu behar dute, bai Hegoalde global-Hegoalde global bai Hegoalde global-Iparralde global. Izan ere, maila askotariko aliantza horiek giltzarri izan ziren FTAAren kontrako erresistentziaren arrakastan. Hegoalde global-Iparralde global aliantzei dagokienez, Latinoamerikako EMFrentzat oso garrantzitsua izan zen toki aberatsetan zeuden pobrezia eta bazterkeria mailak ezagutzera ematea. Azkenik, Hegoalde global-Iparralde global aliantza horiek sortzeko emakume migranteek duten funtsezko rola azpimarratu nahi dugu.

Alternatiba?
Ez dago
proiektu
BAKAR BAT.
Aniztasuna
sistema
garaitzeko

TOKIKO EKONOMIAK SENDOTZEA

- Indarrak:
 - Beste bizimodu batzuk, hemen eta orain
 - Bestelako ekoizpen bat bestelako behar batzuk asetzeko
 - Lana erdigunean
 - Lurraldeko burujabetzaren bidean
 - Neurritasun ekologikoa
 - Zaintzaren etika
- Erronkak:
 - Menpekotasunetik erdigunera
 - Koordinatzea eta eskalatzea
 - Ekoizpen birmoldaketa integralaren bidean
 - Hirira eramatea
- Eztabaida:
 - Sare komunitarioen protagonismoa?
 - Estatuaren protagonismoa eta XXI. mendeko sozialismoa?

ESKUALDE INTEGRAZIO ALTERNATIBOA

- Herriek eta herrien zerbitzura egina
- Bizitzatik eta ez merkatuetatik
- Ekoizpen osagarritasuna eta indar politikoa sortzea



12

bukatzeko

12. Bukatzeko

Momentu zaila bizi dugu. Zenbaitek ohartarazten diguten bezala, proiektu hegemonikoaren berrantolaketaren aurrean, gertatzen ari dena argitzeko eta egin behar duguna identifikatzeko dugun argitasun politikoak arrisku handia dakar. Hain zuzen ere, arrisku hori MLIen alde berriaren aurrean ikuspegi pragmatista eta teknokratikoa erabiltzea da. Dena den, aurretik ikasitako lezioek ikuspegi hori saihestera eramaten gaituzte. Hori lortzeko gure burua argitu behar dugu politikoki. Beharbada, honako hauei begirada feminista bat botatzea lagungarria izan daiteke: gaur egungo diagnostikoari (indarkeriaren paper antolatzailea eta bere dimentsio patriarkalak kontuan hartuz) eta alternatibei (merkatuz kanpoko logika batean oinarrituz, lurraldean errotutako esperientzien eta bizitza ugaltzeko ekimenetan emakumeek duten rolaen arteko loturarekin)

Kapitalismo unibertsalista-ren eta gerra ekonomikoko kapitalismoaren proiektuen artean, itxuraz, kontraesana dago. Baina horretaz harago, bien arteko sintesi bat egongo dela aurreikus dezakegu (Fernández y Hernández, 2017). Sintesi horrek bi ezaugarri nagusi izango ditu. Alde batetik, aurreko proiektu globalizazioarekin jarraitutasun hariak ezarriko ditu. Globalizazioak maila globalean boterea eta baliabideak pilatzen ditu botere korporatiboaren inguruan. Horretarako, bizitza gero eta gehiago merkantilizatzen du eta zigorgabetasunaren arkitektura juridiko bat sortzen du. Globalizazioa, bada, ez da geldituko. Beste alde batetik, sintesi hori aurreko proiektua baino atzerakoiagoa izango da eta, hortaz, nolabaiteko haustura bat egongo da aurreko proiektu horrekin. Dagoeneko koloreetako agenda-ren neoliberalismoak mozarroa kendu du. Hala, orain arte erabilitako erretorika, hau da, “guztiok irabazten dutela” eta negozio pribatua eta eskubideak (indibidualak) bateragarriak direla esaten zigun erretorika bukatu da. Krisi ekologikoak eta zibilizazio krisiak agerian uzten dute hor ez garela denak sartzeko. Baina nortzuk geratuko dira sintesizko proiektu horren barruan? Datorren kapitalismoa argi eta garbi heteropatriarkala eta arrazista izango da. Bestelako etorkizuna nahi dugunok galdera hau egin beharko diogu gure buruari: nola desegin hainbeste

pertsona baztertzen dituen sistema eta nola egin bazterkerian oinarritzen ez den beste bat?

Feminismotik abiatuz, hau adierazten dugu: berrantolatzen ari den hori ez da kapitalismoa, gauza eskandalagarri hori baizik. Hau da, berrantolaketa horren dimentsio heteropatriarkalak eta kolonialak kontuan hartu behar ditugu (horien artean testu honek lehenengoak landu ditu). Era berean, sistema hori kapitala pilatzearen eta bizitzaren iraunkortasun prozesuen arteko gatazka estruktural konponezinean oinarritzen da. Gatazka hori, bada, ez da abstraktua. Kapitala ez da lurraz gaindiko izaki bat; aitzitik, aurpegia du, botere korporatiboaren aurpegia, hain zuzen ere. Horren atzean elite global bat dago eta hori gizon zuri, burges, heldu, heterosexual eta hiritarraren inguruan antolatzen da, hori baita gauza eskandalagarri horren subjektu pribilegia. Hala, proiektu horien sintesia hartuko duen forma zehatzak (Millen olde berriaren eduki zehatzean gauzatuko dena) botere korporatiboaren atzean zer aurpegi egongo diren erabakiko du. Bestalde, bizitza ere ez da ezerezean flotatzen duen hodei aratz eta garbia. Aitzitik, bizitza jakinez ari gara. Pilaketak gizatiarra ez den bizitza espoliatzen du. Era berean, gizakien bizitza ere esplotatzen du. Hala ere, esplotazio hori oso desberdina da bizitza horiek botere korporatibotik, hau da, gizon zuri, burges, heldu, heterosexual eta hiritarrarengandik gertu ala urrun badaude. Era berean, proiektuen sintesi horrek hartzen duen formak espoliazio eta gogortasun horrek hartuko dituzten formak ere erabakiko ditu, baita bizitzaren kontrako eraso horiek hartuko duten forma ere.

Gauza eskandalagarri horren hedapen globalak bizitzaren (gizatiarra eta ez gizatiarra) merkantilizazio proiektua sakontzea dakar. Horretan, bizitza gutxi batzuek etekina ateratzen dute. Horretarako planeta arpilatzen dute eta bizitza txarrak gizartean era bidegabean banatzen dituzte. Beraz, bizitza merkantilizatzea eta desberdintasunak sakontzea osagarriak dira. Ez da, hortaz, desberdintasun garbia (hau da, batzuk barruan daudela eta gainontzekoak kanpoan); aitzitik, hiper-segmentazio sozioekonomikoko prozesu bat baizik. Hori dela eta, erresistentzia sortzeko ez dugu segurutzat jo behar elkarrekin gaudela. Aldiz, subjektu politiko kolektiboa sortu behar dugu, (oso era desberdinean kaltetzen gaituen) arazo komuna identifikatuz eta horrek proiektu hegemonikoaren hedapenarekin duen lotura argituz.

Hedapen hori hiru mekanismoren bidez ematen da. Lehenik, sedukzioaren bitartez. Horrek honako hauek eraldatzen ditu: (ondo) bizitzearen ideia, nahi dugun bizimodua, nola ulertzen dugun gure burua eta zer zentzu ematen diegun gure bizi-

tzari eta egiten ditugun gauzei. Sedukzioaren eraginez, subjektibitate konplizeak ezartzen dira (esaterako, gure ikuskeran ongizatea, gero eta gehiago, merkatuari lotua dago eta erabat indibidualista da). Ikuskera feminista batek egitura material eta diskurtsiboak batera eraikitzeari erasotzen dio eta horiek osatzen duten eta gu itotzen gaituen gorbata hobeto ulertzen laguntzen du (Comisión de feminismos-sol, 2013). Era berean, egiturazko hertsadura horien markoan, ihespuntuak eta agentzia marjinak sumatzen laguntzen digu.

Beharbada, sedukzioa izan da proiektu hegemonikoak azken hamarkadetan jokatu ohi duen jokaldia. Hau esaten ziguten: “ongizatea hau da eta hemen guztiok sartzen gara”. Baina beti egon da bigarren mekanismo bat: indarkeria. Batzuetan instrumentala baina gero eta espresiboagoa. Izan ere, mezu hau igorri nahi du: “hemen bizitza menperatzen da, hau da, bizirik dagoenaren multzo osoa”. Eta adierazkortasun hori indarkeria patriarkalaren osagarri da. Hala, botere korporatiboa, maskulinitatea bezala, besteak baztertuz lortzen den estatus bat da. Hortaz, botere korporatiboa patriarkala da. Botere hori besteen bizitza kontrolatuz eta menperatzeko ahalmen hori publikoki adieraziz lortzen da. Beraz, gauza eskandalagarri horren indarkeria desberdinen rola ulertzeko ikuskera feminista beharrezkoa da.

Sedukzioak gure bizitza gozoki merkantilizatzen du eta indarkeriak, aldiz, oldarka egiten du; baina talde bizi horren boterea erauzten laguntzen duten mekanismo instituzionalak ezinbestekoak dira. Gauza eskandalagarri hori inposatzeko hirugarren bidea inposizio hori ahalbidetuko duen egitura sozioekonomiko, politiko eta juridikoa sortzea da. Ekonomiaren finantzarizazioa eta bizitzaren merkantilizazioa, besteak beste, aurreko MLlen oldeak bultzatu zituen. Egitura horiek fikziozkoa eta toxikoa den aberastasuna pilatzea ahalbidetzen duten mekanismoak ezartzen dituzte. Baina aberastasun hori, toxikoa eta fikziozkoa bada ere, benetako boterea dakar. Zigorgabetasunaren arkitektura juridikoak (edo lex mercatoriak) pilaketa hori laguntzen eta legitimatzen duten mekanismo legalak sortzen ditu. MLlen olde berriak lex mercatoria hori sendotu eta pilaketa mugatzeko ahalmen politikoa txikiagotu nahi du. Hau da, “gubernantza korporatibo” berria sortzen du. Horri esker, botere korporatiboa da sistemaren funtzionamendua arautzen duten mekanismoa instituzionalak zehazteko ahalmen handiena duen subjektua (Fernández, 2017).

Hitz batez, MIIak kapital-bizitza gatazkan sakontzeko eta sistema biozida hau mundu osoan finkatzeko funtsezko tresna dira. Horregatik, lehentasuna izan behar dute gure borroka politiko feministan. Izan ere, feminismoak bizitzatik begiratzearen eta

eustearen aldeko apustua egiten du. Hain zuzen ere, berehalako bizitza konkretutik. Garay-ren hitzetan:

“Funtsezkoa da politika biozida horien ondorioak ikuspegi feminista batetik aztertzea, eredu osoa zimenduetatik zalantzan jarriz. Itun horien kritika sendo eta erradikala egiteko beharrezkoak diren tresna teorikoak ditugu. Hala, kritika horrek osagai makroekonomikoak eta bizitzaren ugalketaren oinarritzko elementuak barneratzen lagundu behar digu. [...] Gainera, feminismoak eraldaketarako proposamenak ditu. Badakigu alternatiba ugari eta anitz dagoela eta horiek bizitza erdigunean jarri behar dute, “lan” kontzeptua eta errealitatea birdimentsionatu behar dute, zaintza lanak dagokien lekuan jarri behar dituzte eta bizitzaren iraunkortasuna antolakuntza sozial eta ekonomikoaren motor bilakatu behar dute.” (2017: 60)

Ez dugu TPP, CETA, TTIP edo TISAren azterketa teknizistarik nahi; izan ere, horiek hitz ulertezinez beteta egoten dira. Ikasi dugu horiek ez direla erabilgarriak, kalterako ere izan daitezkeela. Ez dugu BPGk esportazio tasan edo enplegu bolumenean dituen inpaktuak aztertzen dituen ikerketarik nahi. Aitzitik, horiek berehalako bizitza konkretutik ulertu eta borrokatu nahi ditugu. Izan ere, gure ustez, bizitzan ezin dira banandu gizatiarra dena eta gizatiarra ez dena. Baina gaur egun, zitalki hierarkikoa den sistema horretan duten posizioaren arabera, bizitzek oso balio desberdina dute bizidunen multzo horretan. Beraz, bizitzatik begiratu nahi dugu sistema biozida hori ulertzeko eta bere berrantolaketak ulertzeko. Eta horrela, ihespuntuak eta arrailak aurkitu ahal izango ditugu eta horiek elkartuko ditugu zulo bal egiteko. Elkarbizitza onaren iraunkortasuna erdigunean jartzen duten beste mundu batzuk nahi ditugu. Elkarbizitza on horrek guztiontzat izan behar du posible; izan ere, batzuen bada besteen lepotik, ez dugu hori nahi. Aldi berean, elkarbizitza on horrek aniztasuna onartu behar du; gure bizitza errepikaezinen berezitasuna, alegia. Beste mundu horietan legea ez da mercatoria izango eta egitura sozioekonomikoek, politikoez eta juridikoez bizitza ona guztion ardura izateko baldintzak jarri beharko dituzte. Hala, hau guztia ur gainean mantentzea ez da emakumeen (batzuen) patua izango, beren bizitzaren kontura.

Millei hemendik begiratzen diegu: feminismotik, garen bizitzatik eta izan nahi dugun bizitzatik.



13

bibliografia

Bibliografía

- Azar, Paola, Alma Espino eta Soledad Salvador (2008), *Los vínculos entre comercio, género y equidad. Un análisis para seis países de América Latina*, Capítulo Latinoamericano de la Red Internacional de Género y Comercio (LA-IGTN), Montevideo, 2008ko ekaina.
- AWID (2002), “El Banco Mundial y los derechos de las mujeres en el desarrollo”, *Derechos de las mujeres y cambio económico*, 5. zkia., 2002ko urria. https://www.awid.org/sites/default/files/atoms/files/el_banco_mundial_y_los_derechos_de_las_mujeres_en_el_desarrollo.pdf
- Colectivo Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo (2014), *La vida en el centro y el crudo bajo la tierra. El Yasuní en clave feminista*. Colectivo Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo. <https://miradascriticadeltorrioriodesdeelfeminismo.files.wordpress.com/2014/05/yasunienclavefeminista.pdf>
- Comisión de feminismos-sol (15m Madrid) (2013), *Dossier deuda*, 2013ko ekaina. <http://www.feministas.org/IMG/pdf/dossier-difusion-taller-deuda-femsol.pdf>
- Comité de Mujeres (2004), *Boletín bilingüe de mujeres para mujeres en las Américas*, 1. libk., 1. zkia., 2004ko uztaila. http://www.rmalc.org/historico/documentos/93_finalbulletin-jul041.pdf
- Comité de Mujeres (2005), *Boletín bilingüe de mujeres para mujeres en las Américas*, 1. libk., 3. zkia., 2005eko maiatza.
- Concha, Leonor Aída (2010), “Las feministas en el Foro Social Mundial”, *ALOP*, 27. bulletina, 2010eko urtarrila. http://www.economiasolidaria.org/documentos/las_feministas_en_el_foro_social_mundial
- Equipo de Investigaciones Laborales eta Red de Solidaridad de la Maquila (2016), *Las trabajadoras(es) de la industria maquiladora en Centroamérica*, Equipo de Investigaciones Laborales eta Red de Solidaridad de la Maquila. http://www.maquilasolidarity.org/sites/maquilasolidarity.org/files/attachment/Trabajadores_de_la_maquila_C.A_2016.pdf
- Equipo Maíz (2007), *MalTratadas del Libre Comercio*, Equipo Maíz: EL Salvador.
- Faria, Nalu (2006), “El feminismo latinoamericano y caribeño: perspectivas frente al neoliberalismo, hemen: REMTE (2006), *Mujeres y cambio: construir alternativas en lucha*, OXFAM eta REMTE. <http://www.remte-bolivia.org/attachments/article/132/Mujeres%20y%20cambio%20construir%20alternativas%20en%20la%20lucha.pdf>
- Faria, Nalu eta Renata Moreno (2007), *Feminismo e Integração da América Latina e do Caribe*, SOF. http://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2016/07/caderno_10.11.07.pdf

- Fernández Ortiz de Zárate, Gonzalo (2017), “La que se avecina: una capitalismo (aún) más salvaje”, *Dossier Otra economía está en marcha* (argitaratzeke), Economistas sin Fronteras
- Fernández Ortiz de Zárate, Gonzalo eta Juan Hernández (2017), “Entre el proteccionismo de Trump y el libremercado neoliberal”, *Viento Sur*, 151. zkia. <http://vientosur.info/spip.php?article12578>
- Fraser, Nancy (2013), “De cómo cierto feminismo se convirtió en criada del capitalismo. Y la manera de rectificarlo”, *sinpermiso*, 2013ko urriaren 20a. <http://www.sinpermiso.info/textos/de-como-cierto-feminismo-se-convirti-en-criada-del-capitalismo-y-la-ma-nera-de-rectificarlo>
- --- (2015), *Fortunas del feminismo. Del capitalismo gestionado por el estado a la crisis neoliberal*, IAEN eta Traficantes de Sueños. <https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Fortunas%20del%20feminismo%20-%20Traficantes%20de%20Sue%C3%B1os.pdf>
- Garay Zarraga, Ane (2017), *FEMINISTOK TTIP-ARI AURRE! ¿Por qué es necesaria una respuesta feminista a los nuevos tratados globales?*, Mundubat. <http://www.mundubat.org/la-investigacion-de-la-respuesta-feminista-a-los-tratados-globales/>
- González, Erika (2016), “Gobiernos progresistas en América Latina, notas sobre el fin de un ciclo”, *Diagonal*, 2016ko irailaren 8a. <http://www.revistapueblos.org/?p=21105>
- Guamán, Adoración (2016), *El CETA al descubierto: las consecuencias del tratado entre la UE y Canadá sobre los derechos sociales*, Editorial Bomarzo, Albacete
- Hernández Zubizarreta, Juan eta Pedro Ramiro (2015), *Contra la lex mercatoria. Propuestas y alternativas para dismantelar el poder de las empresas transnacionales*, Icaria. <http://omal.info/spip.php?article7358>
- IGTN (2003), *Declaración dirigida a las Redes de Mujeres en América Latina: estrategias de las mujeres para la OMC*, http://www.biodiversidadla.org/Objetos_Relacionados/Nuevos_Documentos/Declaracion_dirigida_a_las_Redde_Mujeres_en_America_Latina_estrategias_de_las_mujeres_para_la_OMC
- León, Magdalena (2015), “Alca: resistencias feministas y claves de integración alternativa”, hemem: REMTE (2015), *Las mujeres contra el libre comercio: una historia de resistencia y lucha*, REMTE, 40-51. or. <http://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2015/11/lasmujerescontraellibrecomercio.pdf>
- --- (2016), “La economía social y solidaria en América Latina: brevísimos acercamientos a sus tendencias y desafíos”, *Pueblos-Revista de información y debate* 71. zkia. <http://www.revistapueblos.org/?p=21312>
- Marcellino, Maria Fernanda, Nalu Faria eta Tica Moreno (2014), *Trabalho, corpo e vida das mulheres – uma leitura feminista sobre as dinâmicas do capital nos territórios*, SOF. http://sof2.tempsite.ws/wp-content/uploads/2015/04/Cartilha_mercantilizacao.pdf
- Mesoamericanas en resistencia por una vida digna (2014a), *Para entender y transformar la vida de las mujeres. Sistematización del proceso mesoamericano de formación de mujeres en economía feminista*. <https://mesoamericanasenresistencia.com/media/uploads/documents/sistematizacion.pdf>

- --- (2014b), “Módulo 5. Propuestas sistémicas de resistencia anticapitalista, antineoliberal, antipatriarcal y descolonial”, *Procesos de formación y producción de conocimiento Formación política de mujeres en economía feminista*. https://mesoamericanasenresistencia.com/media/uploads/formacion_politica/005_modulo_cinco_final.pdf
- Moussié, Rachel (2016), *Challenging Corporate Power. Struggles for Women’s Rights, Economic and Gender Justice*, AWID eta Solidarity Center. https://www.awid.org/sites/default/files/atoms/files/ccp_fullreport_eng.pdf
- Plaza, Beatriz eta Pedro Ramiro (2016), *Justicia privatizada. El Estado español y los mecanismos de resolución de controversias inversor-Estado*, Ecologistas en Acción. http://omal.info/IMG/pdf/justicia_privatizada_-_informe_final.pdf
- Quiroga Díaz, Natalia (2009), “Economías feminista, social y solidaria. Respuestas heterodoxas a la crisis de reproducción en América Latina”, *Revista de Ciencias Sociales*, 33. zkia., 77-89. or. <http://www.flacso.org.ec/docs/i33quiroga.pdf>
- Randriamo, Zo (2006), *Género y comercio. Informe general*, BRIDGE. http://www.bridge.ids.ac.uk/reports/Trade_OR_Sp%20final.pdf
- REMTE (2015), *Las mujeres contra el libre comercio: una historia de resistencia y lucha*, REMTE. <http://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2015/11/lasmujerescontraellibrecomercio.pdf>
- Riechmann, Jorge (2003), “Un concepto esclarecedor, potente y persuasivo para pensar la sustentabilidad. Biomimesis”, *El Ecologista*, 36. zkia., 28-31. or. <http://www.icesi.edu.co/blogs/bitacorainnovacion142/files/2014/10/Biomimesis.pdf>
- Rodríguez, Graciela (2016), “La liberalización del comercio internacional y sus impactos sobre las mujeres”, *Mimeo*
- Saballos, Azucena (2007), *Construcción de una Agenda de las Mujeres en el marco del Acuerdo de Asociación*, PAIRCA. <http://fmicanica.blogspot.com.es/2007/09/agenda-de-las-mujeres-en-el-marco-del.html>
- Salazar, Rebeca (2007), *Las relaciones de género en el marco del TLCUEM: Hacia la construcción de una propuesta metodológica para un análisis de caso*, Fundación Heinrich Böll. http://www.cancun2003.org/downloads/Genero_TLCUEM.pdf
- Sanchís, Norma (argtz.) (2001), *El ALCA en Debate. Una perspectiva desde las mujeres*, Buenos Aires, Editorial Biblos.
- Sever, Charlie y Lata Narayanaswamy (2006), *Género y comercio. Colección de recursos de apoyo*, BRIDGE. http://docs.bridge.ids.ac.uk/vfile/upload/4/document/1105/Trade_SRC_Sp_formatted.pdf
- Zenbait (2006), *Mujeres construyendo alternativas para otra Integración*, 2006ko abendua. <http://www.quiendebeaquien.org/kitbcn/semanaoct07/deudasocial/genero/declaracion%20mujeres%20AL%20cochabamba.pdf>
- --- (2009), *Las mujeres en la Alianza Bolivariana para los Pueblos de nuestra América ALBA – TCP*, Cochabamba, 2009ko urria. <http://www.fedaeps.org/spip.php?article70>

laburtzapenen hiztegia

- AdA: Acuerdo de Asociación
- ALBA: Gure Amerikako Herrientzako Aliantza Bolivartarra. Laburturik: Amerikarako Aliantza Bolivartarra.
- ASC: Aliantza Sozial Kontinentala
- CETA: Kanada eta Europako Batasunaren arteko Ekonomia eta Merkataritza Akordioa
- DAS: Dominazio anitzeko sistema
- DEP: Doikuntza Estrukturaleko Programak
- DR-CAFTA: Dominikar Errepublikaren, Erdialdeko Amerikaren eta AEBen arteko merkataritza libreko ituna
- EMF: Emakumeen mugimendu feminista
- FTAA: Ameriketako Merkataritza Librerako Esparrua
- MII: Merkataritza eta Inbertsio Itunak
- MLE: Merkataritza Libreko Itunak
- MME: Munduko Merkataritza Erakundea
- NAFTA: Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna
- NDF: Nazioarteko Diru Funtza
- ONU: Nazio Batuen Erakundea
- PPP: Puebla Panama Plana
- TISA: Zerbitzuen merkataritzarako akordioa
- TPP: Lankidetzak ekonomikoko akordio transpazifikoa
- TTIP: Amerikako Estatu Batuen eta Europako Batasunaren arteko Merkataritza eta Inbertsio Itun Transatlantikoa
- Unasur: Hego Amerikako Nazioen Batasuna



www.omal.info

www.pazcondignidad.org

www.revistapueblos.org

Handwritten numbers and symbols in red and blue ink, including "30081105-10", "2007-901070", and "70008-30", on a grid background.

